Zientzia Olinpiaden helburua (P2.1.4 prozedura) batxilergoko ikasleak zientzien garapenean akuilatzea eta inplikatzeko da eta, horrekin batera, gaur egun duen garrantzia nabarmentzea, horren ikasketa eta hedapena bultzatuta. Olinpiadak 2011ko urtarrilean, otsailean eta martxoan izan ziren: Matematika (urtarrilak 21), Biologia (urtarrilak 22 eta martxoak 5), Geologia (urtarrilak 21), Fisika (martxoak 4) eta Kimika (martxoak 5). Guztira, bigarren hezkuntzako 68 ikastetxek eta 191 ikaslek parte hartu zuten. Eskerrak emateko ekitaldia maiatzaren 13an izan zen, UPV/EHUK Abandoibarran duen Bizkaia Aretoa ospakizun aretoan, eta 300 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten: ikasle parte-hartzaileak, prestatzaileak, ikastetxeetako zuzendariak, familiako kideak eta irakasle laguntzaileak. Dekanoa izan zen ekitaldiko buru, Akademia Antolakuntzako errektoreordeak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak lagunduta. Ekitaldian,

¹ ZTF-FCTrentzat, bigarren hezkuntzako ikastetxe estrategikoei ondorengo baldintzetako bat betetzen dute:

University College London unibertsitatean Arkeologiako irakasle titularra den Marcos Martín-Torresek "Un ejército de científicos contra los guerreros de Xian" izeneko hitzaldia eskaini zuen.

UPV/EHUK bat egin du Hezkuntza Ministerioak eta FECYTEk bultzatzen duten **"Udako Campus Zientifikoak"** programaren bigarren edizioarekin eta espainiar estatu osoko DBHko 30 ikasle eta batxilergoko 1. mailako beste hainbeste hartu ditu uztailean. Ikasle gazteenen artean ikerketa zaletasuna sustatzea du helburu. Programa horretan, Hezkuntza Ministerioak Nazioarteko edo Eskualdeko Bikaintasun Campus izendatutako unibertsitateek parte hartzen dute. Euskampusen Udako Campus Zientifikoak lau prestakuntza programa eskaini ditu eta Fisika, Matematika, Kimika eta Biologiako jakintza arloetan jarri du arreta. Horren harira, ZTF-FCTren laguntza izan du.

Askotariko jardueri esker, hautatutako 60 ikasleak era atseginean hurbildu dira gai horietara, ZTF-FCTko irakasle, bekadun eta AZPko langileen eta erdi mailako irakaskuntzako irakasleen bitartez. Honako proiektu hauek gauzatu ziren:

- "Los mejillones como centinelas de la contaminación: análisis a nivel celular y tisular" (Biologia)
- "Física de alto voltaje: chispas, rayos y pelos de punta" (Fisika)
- "Más que números" (Matematika)
- "La materia solamente se transforma" (Kimika)

Zuzendaritza Taldeak eta Fakultateko irakasle eta ikertzaileek parte-hartze aktiboa izan dute **Unibertsitate Orientaziorako Azoketan** (P2.1.5 prozedura), UPV/EHUKo Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak hiru campusetan antolatutakoetan (Gipuzkoan urtarrilaren 15ean, Araban urtarrilaren 22an eta Bizkaian urtarrilaren 29an). Ikasleak eta haien familiak joan ohi dira jardunaldi horietara. 1.200 pertsonak parte hartu zuten Arabako Campusean, 3.200ek Bizkaian, eta 1.972k Gipuzkoan. Parte-hartzaileek 10etik 8,83 puntuko batez besteko balioespena eman zieten gogobetetze inkestan UPV/EHUKo irakasleei. 3. taulan, azken urteotako jardunaldietan parte hartu duten Fakultateko langileen kopuruak ageri dira.

3. taula.- Zuzendaritza Taldeak eta irakasle eta ikertzaileek Unibertsitate Orientaziorako Azoketan izandako parte-hartzearen bilakaera.

Ikasturtea	Parte hartu duten irakasle eta ikertzaileak
2006/07	18
2007/08	20
2008/09	18
2009/10	22
2010/11	25

P2.2 Ikasleak onartzea

Ikasleak onartzeko azpiprozesuan, aukeran dauden titulazioetan matrikulatu nahi duten ikasleei zerbitzua emateko ikastegiak kudeatzen dituen prozedurak biltzen dira:

P2.2.2 Matrikulatzea.

P2.2.3 Oinarrizko ikasgaiak eguneratzeko ikastaroak².

P2.2.4 Ikasle berriei harrera egitea.

P2.2.5 Baliozkotzeak.

Aurtengo ikasturtean (2011/2012), guztira 601 ikasle matrikulatu dira lehenengoz ZTF-FCTn (P2.2.2 prozedura); alegia, azken urteetako matrikulazioaren goranzko joera finkatu egin da (ikus 4. taula). Ikasleen graduakako banaketak agerian uzten du ikastegiak azken urteotan egin dituen proposamenek izan duten harrera ona eta arrakasta; izan ere, ia gradu guztietan lortu da aurreikusita zegoen matrikulazio kopurua eta, zenbaitetan, gainditu ere egin da.

4. taula.- Lehenengo mailan matrikulatutako ikasle berrien bilakaera.

Urtea	Jaiotza urtea	BI	EAE	Biol.	Fis.	Kim.	IK	Mat.	Geol.	Biok. eta BM	Biotek.	IE	Guztira
2002	1984	12.426	22.411	242	65	75	48	24	33	-	-	-	487
2003	1985	11.582	20.970	255	70	87	55	33	44	-	-	-	544
2004	1986	10.981	20.094	193	47	100	65	44	59	-	-	-	508
2005	1987	10.148	18.593	198	60	95	34	44	43	-	-	-	474
2006	1988	9.724	18.021	144	59	92	31	40	35	-	-	-	401
2007	1989	9.024	17.024	178	61	77	29	43	18	-	-	-	406
2008	1990	8.724	16.361	169	47	56	32	42	30	-	-	-	376
2009	1991	8.557	16.228	178	38	58	17	68	35	-	-	-	394
2010	1992	8.587	16.250	83	83	78	75	80	43	41	38	49	570
2011	1993	8.203	15.801	111	85	80	59	78	52	52	58	36	601

— 18 urte betetzen dituzten ikasleen jaiotza urteari dagokion jaiotza tasa, Bizkaiari (BI) eta Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) dagokienez. Iturria: EUSTAT, www.eustat.es (2011ko abenduaren 1era bitartean)

— Ikasle berrien matrikulazio datuak 2011ko abenduaren 1era bitartean. Iturria: ARTUS.

Gainera, 4. taulak 18 urte betetzen dituzten ikasleen jaiotza urteari dagokion jaiotza tasa adierazten du. Matrikulazioak gora egin du; alegia, batetik, jaiotza tasaren beherakadaren ondorioz azken urteotan matrikulazioetan izan den beheranzko joera eten egin da, eta, bestetik, aurtengo ikasturtean 18 urte betetzen dituzten ikasle gazteen portzentajea igo egin da. Zehazki, aurreko ikasturteetan batez beste % 2,2koa izatetik, graduen lehen urtean % 3,5era igo da portzentajea eta aurtengo ikasturtean, berriz, % 3,8ra. Gainera, kontuan hartuz 2011n Euskadin aurkeztu ziren 10.164 ikasleetatik 9.702k gainditu zituztela unibertsitatean sartzeko probak, ondorioa da balizko unibertsitate ikasleen % 6,2 Fakultatera etorri direla ikastera; iaz bezala, baina aurreko ikasturteetan (% 4,4 inguru) baino gehixeago, hain zuzen.

² Ikastaro hauek 2010/2011 ikasturtean ezabatu ziren.

Ikasle berriei harrera egiteko ekitaldia (P2.2.4 prozedura) ikasleek ZTF-FCTrekin duten lehen hartu-eman da, eta funtsezkoa da lehen hartu-eman hori arrakastatsua izatea, gazteak unibertsitateko bizitzan eta ZTF-FCTn integra daitezen, dekanok matrikulatutako ikasleak gutun bidez zuzenean gonbidatu ondoren. Azken urteotan harrera ekitaldia oso interesgarria bihurtu da ikasleentzat, gonbidatutako ikasleen ia % 100a joan ohi baitira. Hala izan da aurten ere. Ekitaldian ondorengoak egiten dira:

- Harrera areto nagusiaren hallean. Horren baitan, titulazio bakoitzeko Ikaslearen Ikasturteko Gida banatzen da (graduari eta 1. mailako irakasgaiei buruzko informazioa, ordutegiak, irakasle tutoreak eta ikasturteko koordinatzaileak, eta abar), baita Fakultateari buruzko informazio orokorra ere (eskola egutegia, segurtasun arauak, ikastegira sartzeko planoa, eta abar).
- Harrera ekitaldia areto nagusian. Dekanoa da ekitaldiaren buru eta Dekanotza Taldeko kideek eta lehen mailako eta titulazioko koordinatzaileek parte hartzen dute.
- Titulazio bakoitzeko koordinatzaile, tutore eta irakasle boluntarioek Fakultatean barrena eskainitako bisitaldia, 30 minutu ingurukoa. Ibilbidea areto nagusiaren hallean hasten da eta hainbat gunetatik igarotzen da: idazkaritza, atezaindegia, ZTFIAZ, Fakultateko informazio guneak (ordutegiak, kultur ekitaldiak, eta abar), ordenagailu gelak eta sarbide libreko gela, ikasgelak eta laborategiak, lanerako gune komunak, armairuak, jantokia, eta abar.

P2.3 Irakaskuntza garatzea

Matrikulatutako ikasleei graduako titulua lortzeko zerbitzua ematen dieten prozedurak biltzen ditu:

- P2.3.1 Ikasleen tutorizazioa.
- P2.3.2 Ikasleen orientazioa.
- P2.3.3 Eskolak programatzea eta ematea eta irakaslan ebaluatzea.
- P2.3.4 Graduako irakaskuntza jarduerak kudeatzea.
- P2.3.5 Gradu Amaierako Lana.
- P2.3.6 Truke programetan parte hartzea.
- P2.3.7 Unibertsitatetik kanpoko praktikak kudeatzea.
- P2.3.8 Prestakuntza osagarria.
- P2.3.9 Kultura hedapena.
- P2.3.10 Enpresen Aurkezpeneko Jardunaldiak.
- P2.3.11 Kredituak amortizatzea: zuzendutako lanak, praktikak eta aukera askeko irakasgaiak.
- P2.3.13 Ebaluazio Berezirako Epaimahaia.
- P2.3.14 Ziurtagiriak eta tituluak egitea.
- P2.3.15 San Alberto Magno ekitaldia.

Prozesuen Mapako azpiprozesu zabalenetako bat da. 15 prozedura biltzen ditu, eta horien helburua ZTF-FCTk matrikulatutako ikasleei zerbitzua emateko kudeatzen dituen mekanismoak ezartzea, kontrolatzea eta optimizatzea da. Alderdi asko biltzen ditu, hala nola TP (Tutoretza Plana) eta orientazioa, eskolak programatzea eta ematea eta irakaslan ebaluatzea, irakaskuntza jarduerak eta baliabideak kudeatzea, truke akademikoak, unibertsitatetik kanpoko praktikak, eta abar.

5. taulan bildu ditugu P2.3 azpiprozesuko adierazle nagusiak. Ikasturte honetan dagoeneko baditugu gradu berrietako lehenengo mailari buruzko emaitzak; aztertutako

datuak bereizi egin ditugu: batetik, lizentziaturei eta ingeniarietzi dagozkienak, eta, bestetik, graduei dagozkienak. Zenbaitetan, ez dugu daturik izango (uzte edo graduazio tasak, enpleguari lotutakoak, eta abar) graduatuen lehenengo promozioa izan arte.

5. taula.- P2.3 Irakaskuntza garatzeko azpiprozesuaren adierazleak. Iturria: ARTUS (2010-12-03) eta Lanbide (www.lanbide.net)

Adierazlea	Unitatea	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09	2009/10	2010/11 (Liz.-Ing./Grad.)
Matrikulatutako ikasle kop.	Ikasle kop.	3.455	3.105	2.823	2.506	2.268	2.084	1.983	1.307 / 768
Ikasketen batez besteko iraupena	Urteak	1,33	1,37	1,36	1,36	1,36	1,35	1,34	1,35 / 1,16
Uzte tasa (1)	%	20,8	18,4	19,4	21,1	18,9	21,9	25,9	42,0 / -
Errendimendu tasa (2)	%	58,6	62,7	64,0	58,9	63,3	62,5	67,1	73,8 / 60,8
Graduazio tasa (3)	%	30,6	33,0	33,1	32,6	37,3	39,4	26,2	33,5 / -
Arrakasta tasa (4)	%	78,5	80,3	80,6	70,8	83,2	85,2	83,6	86,9 / 76,6
Errepikatu duten ikasleen kopurua (5)	Ikasle kop.	17.229	15.935	14.278	12.234	11.285	10.251	9.545	6.950 / -
Errepikatu dutenen tasa (6)	%	5,0	5,1	5,1	4,9	5,0	4,9	4,8	5,3 / -
Eraginkortasun tasa (7)	%	26,4	25,1	26,7	30,0	26,4	25,8	27,8	30 / -
Ikasketak amaitu dituztenen kopurua ikasturteko	Ikasketak amaitu dituztenen kop.	530	454	494	420	363	327	295	260 / 25
Tituludunen enplegu tasa (8, 9)	%	-	88,9	76,2	86,1	83,8	86,8	85,5	77,6 / -
Ahokutatutako enplegu tasa (8, 10)	%	-	88,2	90,6	87,6	90,2	90,7	94,4	92,3 / -
Ikasketak amaitu dituztenen jarduera tasa (8, 11)	%	-	99,1	91,2	94,7	92,5	93,6	92,5	89,8 / -
Lan merkatuan sartzeko denbora (8, 12)	Hilabeteak	-	8,0	11,0	9,5	8,5	10,4	9,1	8,5 / -

- (1) Ez (hasiera urtean gehi bat) ez (hasiera urtean gehi bi) matrikulatu ez zen ikasle kopurua, zati promozioko ikasle kopurua.
- (2) Ikasketak urtean gainditutako kredituak zati ikasketak urtean matrikulatutako kredituak.
- (3) Ikasketak dagozkien urteetan eta urte bat geroago bukatu dituen ikasle kopurua zati promozioko ikasle kopurua.
- (4) Ikasketak urtean gainditutako kredituak zati ikasketak urtean aurkeztutako kredituak.
- (5) Ikasturte batean baino gehiagotan irakasgai berean matrikulatutako ikasle kopurua.
- (6) Ikasle errepikatzaileen kopurua zati ikasketak urtean matrikulatutako ikasle kopurua.
- (7) Urte guztietan matrikulatutako kredituak zati planeko kredituak. Zatidura hori ken bat egin, eta %tan ematen da.
- (8) Ikasketak lau urte lehenago amaitu zituztenei dagokienez.
- (9) Lan ordaindua egiten duen pertsona kopurua (jarduera independenteak egiten dituztenak) zati Lanbideren inkestako erantzunen guztizkoa, %tan.
- (10) Hirugarren hezkuntzari (unibertsitate mailakoari edo goi mailako hezkuntza profesionalari) lotutako lanbideak dituzten pertsonen %a.
- (11) Lanean ari diren pertsonak gehi lanik ez duten baina bila dabilen eta lan egiteko prest dauden pertsonak, zati Lanbideren inkestako erantzunen guztizkoa, %tan.
- (12) Ikasketak bukatu eta lehen lanbidea izan arterainoko denbora.


Azpitarratu behar da gradu berriak interesgarriak eta erakargarriak izan direla ikasle berrientzat, baina baita egokitzapen prozesuari heldu dioten lizentziaturetako eta ingeniarietako lehen urteetako ikasleentzat ere. Hori dela eta, emaitza akademikoak aztertzea zaila da. Hain zuzen ere, errendimendu akademikoari dagozkionak nekez aldera daitezke aurreko ikasturteetakoekin, graduatara nagusiki lehenengo mailako ikasleak eta irakasgai kopuru nabarmen bat gainditzeke dutenak igaro baitira.

Horrenbestez, bi ikasturte itxaron beharko da datu esanguratsuak izateko, Fisikako Graduako ikasleek bakarrik bukatu baitituzte ikasketak. Nolanahi ere, titulu berrietara egokitzeak lizentziatura eta ingeniarietako tasetan izan du eragina:


- Errendimendu (% 73,8), arrakasta (% 86,9) eta eraginkortasun (% 30) tasek hobekuntza apala izan dute aurreko ikasturteetako batezbestekoarekiko.
- Aldiz, uzte (% 42) eta graduazio (% 33,5) tasek okerrera egin dute.

Lan munduan sartzeari buruzko tasa eta datuei dagokienez, gizarteak bizi duen krisialdi finantzario eta ekonomiko larriaren eragina hauteman da. Hala, enplegu tasak (% 77,6) eta jarduera tasak (% 89,8) behera egin dute. Nolanahi ere, ikasketak amaitu dituztenek aurreko ikasturteetakoek baino lehentxeago (8,5 hilabete) aurkitu dute lana.

2. eta 3. irudiek titulazio ezberdinetako (lizentziaturak eta graduak) lehenengo mailako ikasleen errendimendua adierazten dute. Zehazki, lehenengo mailako ikasleek gainditutako deialdien portzentajeak matrikulatutako deialdi kopuruarekiko (4. irudia) eta erabilitako deialdi kopuruarekiko (5. irudia) izan duen bilakaera jasotzen dute. Datuok ikastegiko irakasleei helarazi zitzaizkien urrian.



4. irudia.- Lehenengo mailako ikasleek gainditutako deialdien portzentajea, ikasturte jakin batean matrikulatzerakoan aukeran zeudenekiko. Iturria: ARTUS



5. irudia.- Lehenengo mailako ikasleek gainditutako deialdien portzentajea, ikasturte jakin batean egin dituenekiko. Iturria: ARTUS

Fakultateko Ikasleentzako Argibide Zerbitzua (ZTFIAZ) giltzarria da ikasleen orientazioan (P2.3.2 prozedura). Informazio gune nagusia da prestakuntza ikastaroetan, truke akademikoko programetan, enpresa praktiketan eta lan munduan sartzean interesa duten Fakultateko ikasleentzat eta ikasketak amaitu dituztenentzat. Posta elektronikoz eta telefonoz jasotako kontsulta guztiei erantzun zaie, eta, bereziki, aurrez aurre egindakoei (gehienak). Aurreko urteetako joerak berdin jarraitzen du, hau da, kontsulten erdia baino gehiago enpresetako praktikei eta enplegu eskaerarekin zerikusia duten gaiet buruzkoak dira. Beste bloke garrantzitsu bat, mugikortasun programetan parte hartzen duen ikasle kopurua handitzeari lotua, truke akademikoko programek osatzen dute (Erasmus, Tassep, Latinoamerika eta SICUE-SENECA).

ZTF-FCTko ikasleen elkarteek hainbat jarduera antolatu dituzte (6. taulan ageri dira haietako batzuk). Taulan ikusten denez, ikasturte bereziki aktiboa izan da 2010/2011. Nabarmentzekoa da berreskuratu egin dela Geologiako ikasleen elkarte, Geolan, azken bost urteotan jarduerarik gabe egon ondoren.

6. taula.- Ikasleen elkarten jarduerak.

Elkartea	Jarduera
<i>Bionatur</i>	– Elkarteak ez du informaziorik bidali.
<i>Euskalnatura</i>	Webguneak (www.euskalnatura.net): EuskalNatura.net-en eguneratzeak. Webgune berriaren sorrera eta atonketa (2012. urtearen hasieran argitaratuko da.) Elkarrekin: naturako elkarrekintzak Apirila: Ordizia Urria: Zarautz
<i>Zimatek</i>	– Hitzaldiaren antolaketa: "Ver, medir y manipular átomos: la vanguardia de la Física en el Nanolab de la UPV/EHU" (urriak 26) – Hitzaldiaren antolaketa: "El Laboratorio de Nanofísica de la UPV/EHU en San Sebastián: manipulación y observación de sólidos a escala atómica y a 1K" – Nanolab laborategiarekin akordioa tesia bertan egin nahi duten pertsonak informatzeko, hala nola hitzaldiak edo bisitak egiteko. – Ingeniaritza Elektronikoko jardunaldietan parte hartzea (apirilak 20) – Zerbitzu informatikoei sortutako mezu elektronikoen zein erabiltzaileen galera berreskuratzea. Honen ondorioz ekainetik irailera posta eta webgunea zerbitzutik kanpo egon dira.
<i>Geolan</i>	– Duela 5 urte lan egiteari utzi zion elkarte berritzea. – Elkartearen martxan jartzea. – Fakultateko Ateak Zabaltzeko Jardunaldietan parte hartzea. – "Fenómenos Naturales" hitzaldi zikloa antolatzea.

2010/2011 ikasturtean, titulazio ezberdinetan ikasketak amaitu zituzten ikasleek 4 bidaia egin dituzte. Salbuespen gisa, Fisikako ikasle bat Imperial College-ek antolatutako ikastaro batera joateko bidaia bat finantzatu da, antolatzaileek egonaldia eta ostalua barne hartzen zituen gonbidapen bat bidali ostean. Guztira 26 ikasle bidaia zuten; horiei 269,31na euro egokitu zitzaizkien (diru-laguntza, guztira: 7.002,06 euro; 7. taula).

7. taula.- 2010/2011 ikasturtean egindako ikasketa bidaiei buruzko datuak.

Titulazioa	Norakoa	Ikasleak	Laguntza ()
Kimika	Istanbul	6	1.615,86 €
Matematika	Kuba	13	3.501,03
Ingurumen Zientziak	Holanda	6	1.615,86
Fisika *	Londres	1	269,31
GUZTIRA		26	7.002,06

* Londreseko Imperial College-eko ikastaro batera (gonbidapen bidez) joateko diru-laguntza berezia

2010/2011 ikasturtearen hasierak agerian utzi zuen zenbait faktore bateragarri egin ahal izateko antolamendu akademiko batek dakarren konplexutasuna. Besteak beste, honako faktore hauek lirateke:

- Ikasleen curriculum ibilbide egokiak
- Zenbait titulaziotan ematen diren irakasgaiak ezarritako mugak
- Irakasteko guneen erabilgarritasun mugatua (55 ikasgela eta mintegi)
- Irakasleen eskakizunak eta bateragarritasuna
- Irakaskuntzako modalitateen dibertsifikazioa (azpitalde txikiak)

Testuinguru honetan, bereziki konplexua izan zen ikasleentzat egokiak izango ziren ordutegiak eta curriculum ibilbideak diseinatzea. Lan hori ikastegiak dituen Graduako Ikasketen 9 Batzordeen ezinbesteko laguntzari esker egin ahal izan zen. Lokalen okupazioa optimizatzeko lan zaila Dekanotzaren esku geratu zen.

Orain arte erabilitako metodoek ez dute hurrengo ikasturteetan modu iraunkorrean lan egiten uzten. Hori dela eta, Graduaren Ezarpena Hobetzeko Lehenengo Planaren esparruan (ikus P1.3 azpiprozesua), abiarazitako ekintzetako bat **IkPro** tresna informatiko berria garatzea izan da, ikastegiko irakaskuntza guneen okupazioa kudeatzeko eta horren berri emateko. Zeregin horretarako, Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako errektoreordearen laguntza izan da (IPC 2010 programa). Hona hemen **IkPro** tresnaren ezaugarri nagusiak:

- GAUR aplikaziotik sailek grabatutako irakaskuntza enkargua inportatzen du, baita irakasgaien ordutegiak ere.
- Ikastegi bateko informazio akademiko guztiarekin lan egiteko aukera ematen du: titulazioak, irakasgaiak eta irakasgai multzoak, ikasle taldeak eta azpitaldeak, irakaslan gauzatzeko erabilgarri dauden lokalak, eta abar.
- Sareko formulario publikoak ditu, sei hilekoko eta/edo asteko ordutegiak kontsultatzeko, irakasgaia, ikasle taldea, ikasgelak, irakasleak (identifikatu egin behar da), eta abar.
- Sei hilekoko eta asteko ordutegiak inprimatu ahal izateko agiriak sortzen ditu, ordutegi tauletan, ikasgelen ateetan eta beste leku batzuetan jartzeko.
- Sistema edozein ikastegitara egoki daiteke, maisuetan oinarritutako sistema bati esker (ikasgelak, irakasleak, irakasgaiak, eta abar).
- Etorkizunean, informazioa esportatzeko aukera emango du, GAUR aplikazioak inportatu ahal izateko.

Probaldi labur baten ostean, tresna berri hau 2011/2012 ikasturtean erabiltzen hasi dira, ordutegiak eta ikasgelak kudeatzeko.

Ikasturte bakoitzean ZTF-FCTko ikasleek **truke akademikoko programekiko** duten interesa hazi egiten da (P2.3.6 prozedura). Gure ikasleen artean interes handiena sorrarazten duen programa SÓCRATES-ERASMUS da oraindik ere. Aurreko ikasturtean 46 ikasle mugiarazi zituen programa horrek, 2009/2010 ikasturtean mugiarazi zituen antzera. Hiru ikasle Estatu Batuetako eta Kanadako unibertsitateetan egon ziren TASSEP truke programari esker, eta beste sei ikasle Latinoamerikako unibertsitateetan, UPV/EHU-AL programari esker (programa martxan jarri zenetik kopururik handiena). Aipagarria da SICUE programak gero

eta interes handiagoa pizten duela; hala, truke kopuru gehien izan dituen programa izan da (28).

Atzeritik 17 ikasle etorri dira (13 Erasmus, 1 TASSEP, 1 AL eta 2 SICUE). SICUE programako ikasle kopuruak behera egin du, lizentziatuetarako zeuden akordioak graduatuko ikasleek ere erabili ahal izango zituzten zalantza zegoelako. Akordio guztiak berrikusi behar izan dira, graduen baldintzetara egokitzeko. Akordio horiek berriz ere erabilgarri egongo dira 2011/2012 ikasturteko mugikortasun programetarako; ikasturte honetan, mugikortasun adierazle guztiek gora egitea aurreikusita dago.

8. taulan, azken urteotan Fakultatean izandako ikasle trukeen bilakaera ageri da. 9. taulan, SÓCRATES - ERASMUS truke programetan parte hartu duen irakasle eta ikertzaile kopurua ageri da; eskolak eman dituzte gure ikastegiak akordio bilateralak eginak dituen Europako hainbat unibertsitatetan. Aipatzekoa da, lehen aldiz, ikastegiko Idazkaritzako AZPko langileek ere parte hartu dutela, truke akademikoko prozeduraren kalitatea hobetzeko asmoz; hala, Begoña Valdizanek Italiako *Università degli studi di Macerata* unibertsitatean egonaldia egin du.

8. taula.- ZTF-FCTren bi norabidetako truke akademikoen bilakaera, mugikortasun programen arabera sailkatuta.

Ikasturtea	2006/07		2007/08		2008/09		2009/10		2010/11	
	ZTF	Kanp.	ZTF	Kanp.	ZTF	Kanp.	ZTF	Kanp.	ZTF	Kanp.
SICUE	9	8	14	4	14	10	20	8	28	2
SÓCRATES-ERASMUS	42	10	43	10	43	15	52	18	46	13
TASSEP	1	0	1	0	1	0	2	0	3	1
Latinoamerika eta beste norako batzuk	0	2	2	0	3	2	5	0	6	1
Guztira	52	20	60	14	61	27	79	26	83	17

9. taula.- Azken urteotan mugikortasun programetan parte hartu duten ZTF-FCTko irakasle eta ikertzaileak.

Eskaera urtea	Gauzatze urtea	Irakasle eta ikertzaile kop.	AZPko langileen kop.
2007/08	2008/09	5	0
2008/09	2009/10	10	0
2009/10	2010/11	10	0
2010/11	2011/12	9	1

P2.3 azpiprozesuan jasotako prozeduretako beste adierazle batzuei dagokienez, aipagarria da nabarmen hazi dela mugikortasun programetan (SICUE/SENECA, SÓCRATES-ERASMUS, TASSEP, AL eta beste norako batzuk) parte hartu duten ZTF-FCTko ikasleen portzentajea. Hurrengo urteetan joera horri eustea espero da, askoz ere jende gehiagok eskatu baitu informazioa. Gure ikasleen beharrari erantzunez, prozedura aldatu da eta bi bilera ere egin dira. Lehenengoa orokorra izan da, deialdiaren ezaugarrien berri emateko; eta bigarrena, berriz, zehatzagoa, mugikortasun programetarako hautatutako ikasleekin

egonaldia banan-banan prestatzeko. Hitzaldi horien ondorioz, azpiprozesuaren fluxugrama aldatu behar izan da, zegokion ebaluazio bilera egin ostean.

Mugikortasunak bi arrazoiengatik egin du gora: batetik, ikasleengana hurbiltzeko egindako ahaleginengatik; eta bestetik, berriz, ikastegiak atzerriko unibertsitateekin hitzarmenak sinatzeko duen interesengatik. Aurten, guztira 30 hitzarmen sinatu dira eta horietatik 6 akordio berriak dira, ondorengo unibertsitateekin izenpetutakoak: UNIWERSYTET TECHNOLOGICZNO PRZYRODNICZY IM. JANA I JEDRZEJA SNIADKICH (AGRICULTURE, BIO), Porto (GEO), UNIVERSITÄT KARLSRUHE (IQUIM), BALIKESIR UNIVERSITESI (GEO, BIO), Technische Fachhochschule Berlin (IQUIM), RUHR-UNIVERSITÄT BOCHUM (BIO).

Maiatzean (2011-05-04) 25 ikasle etorri zaizkigu DUTCH RADBOUD UNIVERSITY OF NIJMEGEN unibertsitateetik, Biozientziako gradu ondoko eta ikerkuntzako eskaintza ezagutzeko (1. argazkia). Jardunaldian, ZTF-FCTko zenbait ikerketa laborategi bisitatu zituzten, gidaritzapean.

Ikasleentzako Argibide Zerbitzua (ZTFIAZ) arloko arduradun Asun López Larreak kudeatzen du. 2010/2011 ikasturtean, Fakultatea aitzindaria izan da ikasleen **kanpo praktikak kudeatzeko** Praktiges tresna berria erabiltzen (2.3.7 prozedura). Tresna hau GAUR kudeaketa sistemarekin koordinatuta dago.



1. argazkia.- Campusa aldizkarian (75 zk., 2011ko uztaila) DUTCH RADBOUD UNIVERSITY OF NIJMEGEN unibertsitateko ikasleen bisitari buruz egindako aipamenarekin batera jarritako argazkia.

2010/2011 ikasturtean, guztira 59 ikaslek egin dituzte praktikak enpresetan hezkuntza lankidetzarako hitzarmenen (HLH) bitartez eta 67 hitzarmen sinatu dira. Titulazioen arabera banaketa hau da: Biologia (23), Biokimika (9), Ingurumen Zientziak (3 + 1 SICUE), Fisika (5), Geologia (1), Ingeniaritza Elektronikoa (3), Ingeniaritza Kimikoa (6), Matematika (1), Kimika (9) eta Masterrak (6). Hona hemen ZTF-FCTko ikasleek unibertsitatetik kanpo egindako praktikei buruzko beste datu batzuk (10. taula):

1.- Enpresek eskainitako praktikak	78
2.- Enpresa aktiboak	134
3.- Egindako praktikak	67
4.- Praktikak egin direneko enpresak	49
5.- Ikasle eskatzaileak (baliotanduak)	308
6.- Praktikak egin dituzten ikasleak	59
7.- Ikastegiko tutoreak	66
8.- Laguntza poltsaren batezbestekoa	Hilean 265
9.- Praktiken batez besteko iraupena (orduak)	334 ordu

10. taula.- Azken ikasturteetako HLHen bilakaera. Iturria: GAUR eta ARTUS (2010-12-12)

Ikasturtea	Praktikak eskatu dituen ikasle kop.	Eskainitako o HLH kop.	Praktiketan dagoen ikasle kop.	Ikasketak amaitu dituztenen kop.	HLH kop. / Ikasketak amaitu dituztenen kop.
2002/03	67	165	147	585	0,25
2003/04	297	178	156	530	0,29
2004/05	281	182	157	464	0,34
2005/06	295	209	175	494	0,35
2006/07	262	199	169	420	0,40
2007/08	285	218	179	363	0,49
2008/09	234	140	126	327	0,34
2009/10	249	83	82	296	0,28
2010/11	(³)	78	67	286	0,23

Bestalde, ZTFIAZ zerbitzura iristen diren lan eskaintzak modu aktiboan banatzen dira ikasketak amaitu dituztenen banaketa zerrenden bidez eta Lanbila zerbitzuan aktibo dauden pertsonen artean. Gainera, ZTF-FCT zenbait enplegu ataritara harpidetuta dago, horien artean, Renovetec eta Adegilan, eta atari horietako lan eskaintzak aipatu zerrendetara bidaltzen ditu erregulartasunez.

Prestakuntza osagarria (P2.3.8 prozedura) oso baliabide baliotsua da ikasleen eta ikasketak amaitu dituztenen ezagutza dibertsifikatzeko eta zabaltzeko. Horri esker, lan munduaren aurrean besteengandik ezberdin agertzen ikasten dute. Horregatik, Fakultateak

³ 2010/2011 ikasturtetik aurrera, baldintzak betetzen dituzten ikasleek (titulaziorako kredituen % 50 gainditu izatea) edozein unetan eska dezakete GAUR aplikazioaren bidez eskainitako praktikak egitea.

eta zenbait sailek ikastaroak antolatzen dituzte hainbat arlotan. Guztira, prestakuntza osagarriko 24 kreditu eskaini ditugu, honako ikastaro hauetan banatuta:

- ISO 14001: Ingurumena kudeatzeko sistema bat ezartzea (5 ECTS)
- *Applied and Computational Mathematics: Modelling and computational techniques* (5 ECTS)
- *Applied and Computational Mathematics: Core techniques* (4 ECTS)
- *Applied and Computational Mathematics: Advances aspects* (4 ECTS)
- Gazte profesionalei erronka energetikoen inguruko prestakuntza emateko programa - 2011 (Novia Salcedo Fundazioa, ACS Fundazioa, EEE taldea eta Zientzia eta Teknologia Fakultatea) (6 ECTS)
- "Teoría de Grafos aplicando el método de Moore" ikastaroa, prestakuntza jardura osagarrien bidez amortizatze sistemaren barruan eskainia. Matematika Saila (aukera askeko 3 kreditu).

2010/2011 ikasturtean, Zientzia eta Teknologia Fakultateak jardura kultural eta hedapen zientifikoko jardura ugari antolatu eta/edo garatu ditu (P2.3.9 prozedura):

- **HITZALDI ZIKLOAK, JARDUNALDIAK, MINTEGIAK**

"Murgil zaitez zientzian"

Data	Izenburua	Hizlaria
Urriak 13	Sudoku, denbora-pasa Zientzia?	M. Merino
Urriak 20	Enbatak eta beste haize kontu batzuk	M. Ruiz
Azaroak 3	Funtzioen deribatuen kalkulua: Newton eta Leibniz-en metodoetatik-ra	O. Oruetxebarria
Azaroak 10	Grafenoa, material noblea	A. Bergara
Azaroak 17	Intsektu inbaditzaileak Euskal Herrian	X. Pagola
Azaroak 24	Erradiazio termikoaren misterioak ikertzen	L. del Campo
Abenduak 1	Proteomika, garai post-genomikoan murgildutako ikerketa	F. Elortza
Abenduak 15	Zientziaren dibulgazioa edo dibulgazioaren zientzia	M. Gil

"Actual research in..."

Data	Izenburua	Hizlaria
Azaroak 10	Materias primas y combustibles a partir de residuos: biorefinería sostenible	M. Olazar
Azaroak 17	Sensores biomagnéticos: los pasos desde un laboratorio de investigación en la vida cotidiana	G. Kurlyanskaya
Azaroak 24	Ebro arroko Tertiarioko sabana epeletik azkeneko glaziazioaren hotzera	X. Murelaga
Abenduak 1	Nuevos materiales polimerizados	L. León



"La energía Geotérmica de baja temperatura"

Data	Izenburua	Hizlaria
Urriak 27	El contexto global. La energía geotérmica, clasificación y aplicaciones. La energía geotérmica de muy baja temperatura: fundamentos, tipologías y grado de implantación	I. Arrizabalaga
Azaroak 3	Circuitos cerrados. Conceptos básicos. Metodología de estudio y tipos de instalaciones. Casos prácticos, ejemplos.	I. Arrizabalaga
Azaroak 10	Cimentaciones energéticas, instalaciones sin bomba de calor y circuitos abiertos. Casos prácticos, ejemplos	I. Arrizabalaga
Azaroak 17	Marco normativo y mercado. Perspectivas	I. Arrizabalaga

"Química en la vida cotidiana"

Data	Izenburua	Hizlaria
Urriak 26	La seguridad en los laboratorios universitarios de investigación química	M. Seco
Urriak 27	Química en el automóvil utilitario	M. Seco

"Poloniuro de radio, empápate de química"

Data	Izenburua	Hizlaria
Otsailak 16	El ejército de terracota de Xian y sus armas químicas	M. Martín-Torres
Otsailak 23	La industria química en Bizkaia. Implantación y desarrollo	L.A. García
Martxoak 2	Química y cosmética: la química detrás de los cosméticos a lo largo de la historia	A. Soldevilla
Martxoak 9	Problemática del agua en el siglo XXI y soluciones: procesos químicos avanzados	I. Ortiz Oribe
Martxoak 23	Influencia de la arquitectura molecular, microestructura y morfología de polímeros funcionales en su bioactividad	J. San Román
Martxoak 30	Química y meteoritos	J. Llorca
Apirilak 6	Química y sus leyendas urbanas	J.J. Iruin
Apirilak 13	Cineforum	
Maiatzak 4	La magia de la Química de cada día	J.A. Murillo
Maiatzak 11	La Química Analítica, una herramienta fascinante para garantizar el juego limpio	J. Segura



"Actual research in Biology"

Data	Izenburua	Hizlaria
Otsailak 16	Evaluación morfológica, citológica y molecular en el análisis genético	I. Arrieta
Martxoak 2	Saguzarrak: jokabidea, ekologia eta eboluzioa	J. Aihartza
Martxoak 16	Darwinetik giza genomara	B. Jugo
Martxoak 30	Infecciones fúngicas en modelos animales	M.J. Sevilla
Maiatzak 4	Onddoak ekosistemetan: pinudi eta hariztietako kasu praktikoa	I. Salcedo

"Un paseo por la geometría/Geometrian barrenako ibilaldia"

Data	Izenburua	Hizlaria
Otsailak 16	¿El sistema solar es estable o caótico? Una visión del tema desde Laplace hasta nuestros días	J. Palacián
Otsailak 23	Experiencias en el aula de secundaria	Miguel Barreras
Martxoak 2	Música y matemáticas	P. Gómez
Martxoak 9	Máquinas de calcular	M. . García
Martxoak 23	Teatro y matemáticas	M. Macho
Martxoak 30	Matemáticas y finanzas	A. Madoz
Apirilak 6	Modelos matemáticos en neurociencias	S. Ardanza
Apirilak 13	Las matemáticas de los fluidos	D. Córdoba
Maiatzak 4	Mujeres y matemáticas	E. Pérez
Maiatzak 11	La ventana infinita de Hopper	J. Barredo

"Blue Science"

Data	Izenburua	Hizlaria
Otsailak 9	Introducción a la oceanografía	V. Bengoa
Otsailak 23	Biodiversidad y recursos pesqueros	Fundación Oceana
Martxoak 9	Biología y conservación	E. Marcos
Martxoak 23	Evaluación de la salud de los ecosistemas costeros: el reto de la Estación Marina de Biología y Biotecnología de Plentzia	M. Soto
Apirilak 6	Expedición de circunnavegación Malaspina 2010: cambio global y biodiversidad del océano	J.A. Iriberry
Apirilak 13	Salidas profesionales en el ámbito de la investigación marina	L. Motos

"Las matemáticas de la vida cotidiana 2011"

Data	Izenburua	Hizlaria
Maiatzak 5	El arte de Escher: la topología y la cristalografía	J.M. Montesinos
Maiatzak 12	Un geómetra en el estudio de un arquitecto	J.L. Monterde
Maiatzak 19	Matemáticas y cerebro	M.E. Vázquez



"Universidad: ¿avanzamos hacia la igualdad entre hombres y mujeres?"

Data	Izenburua	Hizlaria
Martxoak 2	Florence Nightingale, maestra en el arte de cuidar	T. Uliarte
Martxoak 9	Igualdad y calidad en la universidad	M.J. Izquierdo
Martxoak 16	Mujer y Ciencia: ¿Una pasión posible?	C. Lara
Martxoak 23	Género, ciencia y educación	J.M. Etxabe
Martxoak 30	Políticas de igualdad: ¿cambiando la realidad?	M. Silvestre M. Saloña E. Domínguez

"Una ventana al mundo cuántico"

Data	Izenburua	Hizlaria
Otsailak 9	Frío, frío, en busca del cero absoluto	G. Muga
Otsailak 16	Información cuántica y tecnologías cuánticas del futuro	E. Solano
Otsailak 23	Supersimetría, supergravedad, cuerdas, branas y todo esto: Teoría también conocida como Teoría de Cuerdas	I. Bandos
Martxoak 2	Agujeros negros y quanta	A. Feinstein

"El mercado laboral en geología: situación y perspectiva"

Data	Izenburua	Hizlaria
Martxoak 9	Geotecnia y las grandes obras de ingeniería civil	C. Arpide
Martxoak 11	Inyección de CO ₂ en estructuras geológicas	N. Canto Toimil
Martxoak 16	Explotación de recursos mineros y combustibles fósiles	A. Franco
Martxoak 23	Investigación de suelos contaminados	J.C. Tapia, N. Cristobal

"Jornadas de orientación sobre las salidas profesionales en Biología, Bioquímica y Ciencias Ambientales"

Data	Izenburua	Hizlaria
Otsailak 2	Presentación del Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi	M. Soto
	He acabado la carrera, ¿y ahora qué?	
Otsailak 16	Salidas profesionales en MEDIO AMBIENTE	Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala
	Salidas profesionales en BIOSANIDAD	
Martxoak 2	Salidas profesionales en BIOTECNOLOGÍA	Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala

"Somos pura Química-Año Internacional de la Química"

Data	Izenburua	Hizlaria
Otsailak 10	Química y deporte	J. Lissavetzky
Otsailak 17	Química y medicamentos	C. Nájera
Otsailak 24	Los avances de la Química y su impacto en la sociedad	B. Herradón
Martxoak 3	Química y Cocina	C. Mans

"RSME 2011"

Data	Izenburua	Hizlaria
Ekainak 23	OuLiPo: matemáticas y literatura	M. Audin, A. Altarriba
Ekainak 24	Las dos ideas de Sofia Kovalevskaya	M. Audin

"Películas"

Data	Izenburua	Aurkezpena
Martxoak 16	Flysch, el susurro de las rocas	A. Hilario

Ziklotan banatutako hitzaldi horiez gain, ikastegian egin diren hitzaldi eta mintegi kopuru altua nabarmendu behar da (sailek, ikerketa taldeek, eta abarrek antolatu dituzte). Jarduera horien artean, honako hauek azpimarratu behar dira:

- "El reglamento europeo REACH: adaptación de la industria y reto científico", J.V. Tarazona
- "The oribatid mites (Acari, Oribatida) as soil inhabitants and their bioindicative value", S. Seniczak
- "Quelle heure est-il, Professeur Poincaré ?", M. Rivas
- "Los hombres leopardo se están extinguiendo", C. Caballero

Gure ikasleei lan munduan sartzen laguntzeko jardueren baitan, aurreko urteetan bezala, 2011ko apirilaren 14an **Enpresen Aurkezpenerako VI. Jardunaldiak** egin ziren (P2.3.10 prozedura). 123 ikasle izan ziren bertan eta 12 enpresak parte hartu zuten.

Orobat, Lan Munduan Sartzen Laguntzeko II. Jardunaldia antolatu genuen, honako goiburua hau harturik: ***Lan bila zabilta? Zure esku dago!*** 2011ko maiatzaren 12an izan zen jardunaldia, eta Fakultateko 53 ikaslek parte hartu zuten. Gonbidatuek ondorengo hitzaldiak eman zituzten:

- "Búsqueda activa de trabajo" (Victoria Boraita Rodríguez, Giza Baliabideetako teknikaria)
- "Recursos para el empleo y creación de empresas en la UPV/EHU" (María Saiz, UPV/EHUko Kanpo Harremanetako zuzendaria)
- "Carreras profesionales en el Sector Químico Vasco" (Luis Blanco, AVEQeko idazkari nagusia)

Aipatzekoa da 2010/2011 ikasturtean **Ebaluazio Berezirako Epaimahaiak** (P2.3.13 prozedura) 7 eskaera bideratu dituela (urteko bi deialdi); horietatik 4k aldeko ebazpena jaso dute eta gainerakoek, berriz, aurkakoa.

2010eko azaroaren 12an, Leioako Campuseko Areto Nagusian, Fakultateko XXXVIII. promozio (2009/2010) ikasleei diplomak banatzeko **Alberto Magno 2010 ekitaldia** egin zen (P2.3.15 prozedura). Ekitaldiko buruak UPV/EHUko errektore Iñaki Goirizelaia eta dekanoa izan ziren.

Fakultateko XXXVIII. promozioa ikasketak amaitu dituzten 292 ikaslek osatu dute. Ikasleok ikastegiak eskaintzen dituen bederatzi titulazioetako batean aritu dira: Biologia (80), Biokimika (29), Ingurumen Zientziak (8), Fisika (26), Geologia (24), Ingeniaritza Elektronikoa (11), Ingeniaritza Kimikoa (30), Matematika (30) eta Kimika (54).

Ekitaldian, honako hauek ere entregatu ziren: 2009/2010 ikasturteko espediente onenentzako sariak; 2008/2009 ikasturteko Lizentziaturako Sari Berezien diplomak; eta MECen 2007/2008 ikasturteko Errendimendu Akademikoaren Bikaintasun Saria jaso duten ikasleentzako sari bat. Horrez gain, XXII. Alberto Magno Zientzia-Fikziozko Literatur Lehiaketaren epaia ere ezagutarazi zen.


Ekitaldian, Fakultateko irakasle Raúl Ibáñez Torresek, 2010ean José María Savirón Dibulgazio Zientifikoko sari nazionala irabazi zuenak, hitzaldi bat eman zuen: "¿Enseñamos los matemáticos a cazar dragones?".

P3 Graduondoko eta ikerkuntzako prozesua

Honako azpiprozesu hauek biltzen ditu:

P3.1 Masterrak eta doktoregoa

P3.2 Ikerkuntza



P3.1 Masterrak eta doktoregoa

Azpiprozesu honek ikastegiko graduondoko programei buruzko informazioa zabaltzeko eta ikasleak programa horietara erakartzeko mekanismoak ezartzen ditu. Honako prozedura honi jarraitzen dio:

P3.1.1 Graduondoko programei buruzko informazioa zabaltzea eta ikasleak programa horietara erakartzea.


Masterretako arduradun akademikoek ematen diete ZTF-FCTko ikasleei masterren berri. Aurten ere ikastegiak masterrei buruzko informazio diptikoak eginez lagundu du, foroetan zabal daitezen (UOAK, Ateak Zabaltzeko Jardunaldiak, ikastetxeetarako bisitak, eta abar), eta informazioa postaz bidali die ZTF-FCTko ikasleei. Txosten hau amaitzear, honako master hauek eskaintzen ditu Fakultateak:

- Graduondoko programa ofiziala: INGURUGIROA ETA BALIABIDE NATURALAK
 - Ingurugiroaren Agrobiologia Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa) (KA, kalitate aipamena)
 - *European Master in Marine Environment and Resources* (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa) (KA)
 - Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Masterra (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa) (KA)
 - Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa Masterra (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa) (KA)

- Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatzia Masterra (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa)
- Graduondoko programa ofiziala: MATEMATIKA
 - Matematikarako Ikerkuntzaren Hastapena Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa)
 - Eredugintza Matematikoa, Estatistika eta Konputazioa Masterra (Unibertsitate arteko Masterra)
- Graduondoko programa ofiziala: FISIKA, KIMIKA ETA MATERIALAK
 - Kimika Sintetiko eta Industrial Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa) (KA)
 - Laserrak eta beren Aplikazioak Kimikan Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa) (KA)
 - Material Berriak Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa)
 - Materialen Fisika eta Teknologia Masterra (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa)
 - Zientzia eta Teknologia Kuantikoak Masterra (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa).
 - Ingeniaritza Fisikoa Masterra (Fakultateko Batzarrak 2010eko azaroaren 10ean egin zuen master honen aldeko txostena)
- Graduondoko programa ofiziala: BIOMEDIKUNTZA, BIZI KALITATEA ETA OSASUNA
 - Biologia Molekularra eta Biomedikuntza Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa) (KA)
- Graduondoko programa ofiziala: INGENIARITZA ETA INDUSTRI TEKNOLOGIA
 - Prozesu Kimikoen Ingeniaritza eta Garapen Jasangarria (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa) (KA)

Horrez gain, uztailaren 13an Fakultateko Batzarrak "Supervisores de Instalaciones Radiactivas en los campos de aplicación: Radioterapia, Medicina Nuclear y Laboratorios de Fuentes no Encapsuladas" prestakuntza ikastaroaren aldeko txostena egin zuen.

2010/2011 ikasturtean, Fakultatean 87 doktorego tesi defendatu dira (horietatik 13 Europakoak izan dira eta 7 euskaraz egin dira); azken ikasturteekin alderatuta, aurten batez besteko kopurua % 38 hazi da (6. irudia).



6. taula.- Azken ikasturteetan defendatutako doktorego tesien kopuruaren bilakaera. Iturria: UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen Unitatea

P3.2 Ikerkuntza


Fakultateko ikerkuntza taldeek ikerkuntzaren inguruko informazioa zabaltzeko erabiltzen dituzten prozedurak biltzen ditu, eta baita prozedura horiek gauzatzeko esku artean dauden baliabideak ere:

P3.2.1 Ikerkuntza jardunaldiak. ⁴

P3.2.2 Baliabide zientifiko-teknikoen gida egitea. ⁵

Jarraian, Ikerketako Errektoreordetzak emandako datuak ditugu. Horiek ikastegiaren azken urteotako ekoizpen zientifiko eta teknologikoa neurtzen laguntzen dute:

- 2011n, 252 ikerketa proiektu eman dira; horietan ikastegiko langileak parte hartzen ari dira (ikerketa proiektuak eta azpiegiturakoak barne).
- 2011n, IEEBk era guztietako 80 ikerketa kontratu bideratu ditu (30 eta 60.000 euro artekoak). Jarduera honen kostua 400.000 eurokoa izan da.
- 2011ko urtariletik irailera, Euskoiker Fundazioak Fakultateko zenbait ikertzaile buru izan dituzten ikerketa proiektuak kudeatu ditu; guztira, beraz, 336.001 euro. 2010ean, berriz (urtariletik abendura), kudeatutako proiektuen zenbateko osoa 504.000 eurokoa izan zen eta kontratatutako aholkularitza teknologikoen kostua, berriz, 19.000 eurokoa (iturria: Euskoiker).
- Egun, erregistratutako 32 patente daude guztira (horietatik 12 nazionalak); horietan Fakultateko kideren batek parte hartu du.
- 2011ko abenduaren 1ean, kontratatutako 701 irakasle eta ikertzaile daude (bekadunak, kontratudun ikertzaileak, eta abar); horietatik 444 iraunkorrak dira.
- 2010ean lortutako datuen arabera, 2006-2010 aldian Fakultateko langileek 2.168 artikulua argitaratu dituzte; batez beste hori $F = 2,556$ izan da eta artikuluko aipamen kopurua, berriz, $X_s = 0,560$.
- ZTF-FCTko ikertzaileek argitaratutako artikulua eta oro har UPV/EHUko kideek argitaratutakoak alderatuta, urte arteko bilakaera 7. irudian adierazitakoa izango litzateke.



7. irudia.- ZTF-FCTko kideek argitaratutako artikulua kopuruaren urte arteko batez besteko bilakaera. Iturria: Ikerketako Errektoreordetza.

⁴ ZTF-FCTko Ikerkuntza Jardunaldiak bi urtez behin egiten dira. Hirugarren edizioa 2012ko otsailaren 8an, 9an eta 10ean izango da.

⁵ Gaur egun, ikerketa taldeetako ikertzaile nagusiekin elkarlanean ari gara, informazio eguneratua biltzeko.

Fakultateak hainbat ekitaldi zientifikotan lagundu du, besteak beste, honako hauetan:

- Doktoregoaren Europako konfigurazio berriari buruzko jardunaldia. 2010eko urriaren 15a.
- Uren Tratamendurako Espainiako IX. Mahaia (META 2010). 2010eko abenduaren 9tik 11ra.
- Euskal Herriko Zientzia eta Teknologiari buruzko Jardunaldia (RSBAP). 2010eko abenduaren 16a.
- III. BIOFOROA. Ikasle ohiek zuzendutako ikerketak. 2010eko abenduaren 22a.
- *Quantum Interferences in Atomic Physics* jardunaldiak. 2011ko urtarrilaren 13an eta 14an. Fisikako Nobel saridun Claude Cohen-Tannoudji irakaslearen partaidetzarekin.
- EUSKOIKER 2010 Ikerketako Saria Fakultateko irakasle Concepción de la Rúa Vacari emateko ekitaldia. 2011ko urtarrilaren 14a.
- *International Work Meeting on the Project EES-Bilbao*. 2011ko martxoaren 14tik 18ra.
- Basoetako Ekofisiologiari buruzko Udaberriko I. Mahai-ingurua. 2011ko apirilaren 1etik 3ra.
- RSME-Imaginary Bilbao erakusketaren inaugurazioa. 2011ko maiatzaren 4a.
- 10+1 Polimeroei buruzko hitzaldi zikloa. 2011ko otsaila-maiatza.
- 2010eko Ikerketako XV. Euskadi Saria Fakultateko irakasle Maribel Arriortua Marcaidari emateko ekitaldia. 2011ko maiatzaren 16a.
- Fisika, Berrikuntza eta Teknologiako RSEF eta BBVA saria Fakultateko irakasle Manuel J. Tello León irakasleari emateko ekitaldia. 2011ko maiatzaren 16a.
- Matematika eguneroko bizimoduan. Bidebarrietan amaitutako hitzaldi zikloa. 2011ko maiatzaren 19a.
- Mikroalga Kaltegarriari eta Biotoxinei buruzko IX. Bilkura Iberikoa. 2011ko maiatzaren 30etik ekainaren 1era.
- *Second International Workshop in Multiphysics, Multiscale and Optimization Problems*. 2011ko ekainaren 6a.
- COSCEren Dibulgazio Zientifikoko Sari Nazionala Fakultateko irakasle Raúl Ibáñezi emateko ekitaldia. 2011ko ekainaren 16a.
- Martín Rivas irakasleak udako solstizioa ospatzeko eskainitako hitzaldia: "Quelle heure est-il, Professeur Poincaré ?". 2011ko ekainaren 28a.
- Zenbakien Teoriari buruzko Laugarren Jardunaldiak. 2011ko uztailaren 11.

P4 Laguntza prozesuak

Fakultateko gainerako prozesuei zerbitzua ematen dieten azpiprozesuak biltzen ditu:


P4.1 Giza baliabideak

P4.2 Komunikazioa eta gizartearekiko elkarrekintza

P4.3 Administrazio kudeaketa

P4.4 Baliabide materialak eta zerbitzuak

P4.5 Euskara



P4.1 Giza baliabideak

Honako prozedura hauek biltzen dira giza baliabideen azpiprozesuan:

P4.1.1 Irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen kudeaketa.

P4.1.2 Langile berriei harrera egitea.

P4.1.3 Langileen prestakuntza.

P4.1.4 Irakasle eta ikertzaileak eta AZPko langileak ebaluatzea, goratzen laguntzea eta balioestea.

Irakasleen kudeaketari dagokionez (P4.1.1 prozedura), 2010/2011 ikasturtean, ordezkapen justifikatuen hainbat eskaera bideratu ziren: bajagatik, amatasun lizentziengatik, irakaskuntza betekizunen murriztapenengatik, bateraezintasunengatik, eta abar.

2011/2012 ikasturteko plangintza sailek ekarritako dokumentazioa aztertu ondoren prestatu zen. Dekanotza Taldeak plaza eskaeren proposamena prestatu zuen, eta 2011ko otsailaren 9an, martxoaren 9an eta maiatzaren 11n onartu zuen Fakultateko Batzarrek. Honako irizpide hauen arabera egin zuten eskaeren txostena:



1. Euskalduntze prozesua indartzea.
2. Irakasleen plantillaren berrikuntza bultzatzea.

11. taulan ageri dira ZTF-FCTren Fakultateko Batzarraren proposamena eta Irakasleen Errektoreordetzaren erabakiak.

11. taula.- Fakultateko Batzarraren 2011ko otsailaren 9ko, martxoaren 9ko eta maiatzaren 11ko bilkuretan aurkeztutako eskaeren eta Irakasleen Errektoreordetzak emandako erabakien laburpena.

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Dedikazioa	Profila	Proposamena	Erabakia
Geodinamika	LPZ aldatzea	Katedra	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Kimika Organikoa II	Hutsik	Agregatua	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Kimika Analitikoa	Hutsik	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berria	Katedra	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Emeritua	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Biokimika eta Biologia Molekularra	Berria	Agregatua	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Elkartua	4 ordu	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Atxikia	Osoa	elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
		Bisitaria		Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
		Bisitaria			Aldekoa	Aldekoa
Landare Biologia eta Ekologia	Berria	Katedra	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berria	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Ez aldekoa	Ez aldekoa
	Berritzea-LPZ aldatzea	Agregatua	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Ez aldekoa
Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia		Elkartua	4 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berria	Katedra	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Materia Kondentsatuaren Fisika	Berria	Titularra	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia	Berria	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Ez aldekoa	Ez aldekoa
	Berritzea	Emeritua	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Bisitaria	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Ingeniaritza Kimikoa	Berria	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Ez aldekoa	Ez aldekoa
	Berritzea	Elkartua	6 ordu	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Elkartua	4 ordu	elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	ULB	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	ULB	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Kimika Ezorganikoa	Berritzea	Elkartua	4 ordu	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Hutsik	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Ez aldekoa
Kimika Fisikoa	Hutsik	Agregatua	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Emeritua	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Emeritua	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Elektrizitatea eta Elektronika	Berria	Katedra	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Matematika Aplikatua	Berria	Bisitaria	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia	Hutsik	Agregatua	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Matematika	Berritzea	Elkartua	6 ordu	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
		Bisitaria			Aldekoa	Aldekoa

Irakasle eta ikertzaileen banaketari dagokionez, aipatzekoa da doktoregoko zein doktorego ondoko hainbat ikertzailek Fakultatean egiten dutela beren lana; alegia, ikertzaile guztien % 41ek (12. taula).

12. taula.- ZTF-FCTko irakasle eta ikertzaileen banaketa. Iturria: Pertsonalaren Gerenteordetza

Kategoria	Guztira	Doktorea	<i>Elebiduna</i>
Emerituak	4	4	0
Unibertsitateko katedradunak	129	129	19
Unib. titularrak	151	151	66
Eskolako titularrak	4	0	1
Osoak	1	1	0
Agregatuak	52	52	38
Irakasle iraunkorrak	341	337	124
Lankideak	8	4	5
Unib. lan kontratudun bitartekoak	34	29	18
Eskolako lan kontratudun bitartekoak	1	1	1
Elkartuak	11	8	2
Irakasle atxikiak	11	11	11
Irakasle bisitariak	5	5	0
Irakasle ez iraunkorrak	70	58	37
Irakasleak, guztira	411	395	161
Ikertzaileak	146	75	3
Prestatzen ari diren praktiketako ikertzaileak (UPV/EHU)	27	0	-
Prestatzen ari diren praktiketako ikertzaileak (MEC)	15	0	-
Prestatzen ari diren praktiketako ikertzaileak (EJ)	32	0	-
Ikertzaile bekadunak (UPV/EHU)	35	0	1
Juan de la Cierva ikertzaileak	5	5	-
MECeko ikertzaile bekadunak	1	0	-
Ramón y Cajal ikertzaileak	3	3	-
Ikertzaile doktoreak (EJ)	9	9	-
Marie Curie ikertzaileak	3	2	-
Ikerbasqueko ikertzaileak	18	18	-
Ikertzaile doktoreak	8	8	-
Ikertzaileak, guztira	302	120	4
Irakasle eta ikertzaileak, guztira	713	515	165


Ikastegira atxikitako administrazio eta zerbitzuetako gaur egungo langileak 13. taulan ageri dira.

2010/2011 ikasturtean, Maïke Adame Ortizek administratzaile postua utzi eta administrazio buru izatera pasatu da. Administratzaile plaza zerbitzu eginkizun gisa bete zuen Fakultateko sail bateko idazkari zen Concepción Goitia Ugartek; egun, koordinatzaile esaten zaio. Bestalde, Unibertsitateak plazak betetzeko zenbait prozesu martxan jartzearen ondorioz, Fakultateko administrazio eta zerbitzuetako langileak gehiago mugitu dira.

Informazio osagarri gisa, jarraian Fakultatean lan egiten duten administrazio eta zerbitzuetako langileen organigrama erantsi dugu (8. irudia).

13. taula.- ZTF-FCTn lan egiten duten AZPko langileak (Meta4-tik ateratako datuak).

Postua	Pertsona kop.
LPZ eta laguntzaileak	
Administrazio burua	1
Administratzailea (koordinatzailea)	1
Ikastegiko teknikaria	1
Bulegoburua	1
Arloko arduraduna	1
Administrari laguntzaileak (ikastegia)	10
Idazkari dekanoa	1
Saileko idazkariak	18
Administrari laguntzailea (sailak)	1
Harrerako/Informazioko laguntzailea	1
Atezain nagusiak	3
Mendekoak	4
Multimediako arduraduna	1
Multimedia Sistemetako teknikari espezialista	1
Erreprografiako arduraduna	1
Laborategiko teknikari espezialistak (ikastegia)	10
Laborategiko teknikari espezialistak (sailak)	4
Laborategiko ofiziala (saila)	1
Irakaskuntzako eta Ikerketako teknikari laguntzailea	1
AZPko langileak, guztira (LPZ eta laguntzaileak)	62
AZPko beste langile batzuk	
Administraria	1
Graduondoko administrari laguntzaileak	2
Kudeaketako teknikaria	1
Hezkuntza laguntzako teknikari espezialistak	2
Informatikako teknikari espezialista (IISIZ)	1
SGIker zerbitzuetako teknikariak	12
SGIker zerbitzuetako teknikari laguntzaileak	5
Beste langile batzuk (laborategiko teknikari espezialistak)	5
AZPko beste langile batzuk, guztira	29
Administrazio eta zerbitzuetako langileak, guztira	91



8. irudia.- Fakultateko administrazio eta zerbitzuetako langileen organigrama

Fakultateko langile askok (bai irakasle eta ikertzaileek bai administrazio eta zerbitzuetao langileek) **hainbat prestakuntza programatan parte hartu dute** (P4.1.3 prozedura). Jarraian, nabarmenenak ditugu:

ERAGIN programa

2010/2011 ikasturtean, Fakultateko 9 irakaslek parte hartu dute Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (HELAZ) antolatutako ERAGIN prestakuntza programan. Denboraldi horretan, gainera, aurreko ikasturtean ERAGIN programako prestakuntza jaso zuten 5 irakasleek programan parte hartu bitartean gauzatutako metodologia aktiboei jarraiki eman dituzte irakasgaiak.

ZTF-FCTko Metodologia Aktiboen Lehenengo Tailerra (Zientzia Esperimentalak)

Tailer honen helburua Zientzia eta Teknologia Fakultatean ematen diren graduak aplikatutako metodologia aktiboen (arazoetan oinarritutako ikaskuntza –AOI edo PBL–) erabilera aurkeztea izan zen. Tailerrak 8 ordu iraun zuen (2011-01-25) eta 52 irakaslek parte hartu zuten. ERAGIN programako tutore diren ikastegiko irakasle Alberto Vicariok, Isabel Smithek eta Asier Aranzabalek koordinatu zuten. Fakultateko irakasle Ana Aguirrek eta Arantza Urkaregik beren irakasgaietan metodologia aktiboak aplikatzean izandako esperientziak ere aurkeztu zituzten. Bertaratutakoek batez beste 4,95eko balioespena egin zuten, 6tik.

Terminologia Sareak EHUnduz

Gradu berrietako curriculum garapenean laguntzeko EHUndu programaren baitan, Fakultateko irakasleei zuzendutako "Terminologia Sareak EHUnduz" ikastaroa antolatu da. Euskal Filologia Sailak eman du, euskarazko testu akademikoen hizkuntza kalitatea hobetzeko eta euskarazko terminologia zientifikoa bilduko duen corpus bat sortzeko. Ikastaroan, 25 irakaslek parte hartu zuten eta bi zati izan zituen:

- Testuen hizkuntza kalitatea hobetzeko estrategiak: 60 ordu (30 ordu bertaratuta eta 30 ordu bertaratu gabe). Parte-hartzaile guztiek gaingitu zuten atal hau.
- Terminologiari buruzko lana: beste 60 ordu (15 ordu bertaratuta eta 45 ordu norberak bere aldetik lan egiteko). Bost pertsonak gaingitu zuten ikastaroaren zati hau.

Irakasle Taldeak Koordinatzeko Prestakuntza Ikastaroa

*Ik*d programaren esparruan, eta EHUndu programaren bidez, UPV/EHUK irakasleen arteko koordinazioa indartu nahi du, gradu berriak ezartzearen baitan. Asmo horrekin, Irakasle Taldeak Koordinatzeko Ikastaroaren lehenengo edizioa egin zen, HELAZek antolatuta. Bederatzi titulazioetako graduko edo mailako 23 koordinatzailek eman zuten izena ikastaroan; guztiak ere ikastegiko irakasleak. Saiotetan arreta berezia eskaini zitzaion irakasle taldeen definizioari eta 9 graduen baitan garatu beharreko zeharkako gaitasunei, Europako Unibertsitate Eremuko koordinazioa hobetzeko tresna gisa.

Aipatzekoa da garrantzi berezia dutela lantaldeek prestatutako agiriekin, mailako koordinatzaileen eginkizunari eta Fakultateko graduako ikasleek zeharkako gaitasunak garatzearen kudeaketari buruzko hausnarketa garrantzitsu bat egiten baitute.

Orobat, aipatu behar da ikastegiko 27 irakasle hezkuntza berrikuntzako proiektuak (HBP) egiten ari direla. Era berean, 99 irakaslek beste FOPU prestakuntza ikastaro batzuk egin dituzte 2010/2011 ikasturtean zehar. Hona hemen aipagarrienak:

- UPV/EHUK eskainitako IKT tresnak
- Gestión de proyectos Europeos de I+D en el 7PM
- Curso de Edición y retoque de videos y fotografías
- Taller de creatividad aplicado a la docencia
- Trabajo cooperativo mediante la web 2.0
- Curso de Introducción a los medios Audiovisuales
- Creación de artículos científicos utilizando *Latex*
- Acción Tutorial
- Introducción al Software libre: sistema operativo GNU/Linux y Ubuntu
- Introducción a R
- Gestión eficaz del tiempo
- Edición de documentos y presentaciones con *Latex*
- Objetivos y retos en la dirección y planificación de los trabajos de fin de grado
- Introducción al Software libre: *Open Office*
- Competencias del profesorado universitario e inteligencia emocional

AZPko langileen prestakuntza

Prestakuntza eta Gestio Hobekuntzarako Gerenteordetza sortuta, AZPko langileen prestakuntza bultzatzearekin batera, langileentzako ikastaro eskaintza zabaltzeko egin da. Fakultatearen helburua bere langileen gaitasuna hobetzea da eta, beraz, Dekanotza Taldeak ikastaro horietara eta euskara ikastaroetara joatea bultzatzen du. Era berean, AZPko langilerik egokienek nahitaez eman behar dute izena ikastegiaren kudeaketa hobetzeko garrantzitsuak izan daitezkeen ikastaroetan; esate baterako, arriskuen prebentzioko ikastaroetan, suteen aurkakoetan, lehen laguntzakoetan, hondakinak kudeatzekoetan, edo Fakultatean erabiltzen diren tresna informatikoei buruzkoetan. Horren guztiaren ondorioz, AZPko 60 kidek 42 prestakuntza ikastarotan parte hartu dute.

Hona hemen euskara ikasteko liberatu diren edo ikastaroetara joan diren AZPko langileak:

- 8 pertsona ikastaroetara joateko liberatu dira.
- 5 pertsona euskara hobetzeko ikastaroetara joan dira.
- 1 pertsona administrazioko hizkera teknikoko ikastarora joan da.

Bestalde, AZPko langile berriei Fakultatean aurkezpen bat eginez egiten zaie harrera; bertan, Fakultatearen ezaugarriak eta prozesuen arabera kudeaketa sistema azaltzen zaizkie eta, bereziki, beren lana egiteko erabiliko dituzten prozedurak aipatzen dira. Orobat, txosten bat ematen zaie eta, bertan, beren lanpostura egokitzeke informazio garrantzitsua biltzen da.

P4.2 Komunikazioa eta gizartearekiko elkarrekintza

Honako prozedura hauetako jarduerak biltzen ditu:

- P4.2.1 Informazioaren jakinarazpena.
- P4.2.2 Banaketa zerrendak kudeatzea.
- P4.2.3 Iradokizunak, kexak eta kontsultak kudeatzea.
- P4.2.4 Webgunea eta Intraneta kudeatzea.
- P4.2.5 Hedabideekiko harremanak.
- P4.2.6 Dibulgaziozko jardueretan parte hartzea.
- P4.2.7 Alberto Magno Zientzia-Fikziozko Lehiaketa
- P4.2.8 ZTF-FCTko praktiken kudeaketa.

Azpiprozesu honek bi helburu orokor ditu: i) Fakultateko barne harremanak hobetzea ikastegiko kolektiboen artean (Zuzendaritza Taldea, sailak, irakasleak, administrazio eta zerbitzueta langileak, eta ikasleak), ahalik eta intereseko informazio gehien trukatzeko; ii) Fakultateak protagonismo handiagoa izatea gizartean, kanpoko interes taldeekiko komunikazioaren bitartez (enpresak, ikasketak amaitu dituztenak, ikastetxeak eta gizartea, oro har).

2010/2011 ikasturtean, 270 mezu bidali zaizkie Fakultateko hainbat talderi; hots, irakasle eta ikertzaileei, AZPko langileei eta ikasleei (P4.2.1a prozedura). Mezu horiek nagusiki enplegu eskaintzei, bekei, ekitaldiei eta askotariko jakinarazpenei buruzkoak izan dira.

Bestalde, aktiboki sustatu dugu ikasleek erakunde posta erabiltzea. Besteak beste, harrera ekitaldiaren, Enpresen Aurkezpenerako Jardunaldien eta Lan Munduan Sartzen Laguntzeko Jardunaldien bitartez sustatu da hori.

Fakultatean ekitaldiei buruz informazio ugari dagoenez, eta informazio hori modu argiagoan erakusteko, protokolo bat prestatu dugu Fakultatean antolatzen diren edo bertako kideentzat interesgarriak diren ekitaldien berri emateko. Protokolo hori ondorengo helbidean kontsulta daiteke: www.ztf-fct.org > Fakultatean ekitaldiak iragartzeko protokoloa. **Gainera, honako ekitaldi hauek ere egin dira, bai ikastegian bertan bai UPV/EHUn oro har:**

ZTF-FCT

- Fakultatean izan zen zientzia esperimentaletako metodologia aktiboei buruzko tailerra, ZTF-FCT (2010-10-25).
- Fakultateko dekan ohi José Antonio Madariaga irakasleari omenaldia egin zitzaion (2010-12-17).
- Gabonetako kontzertua, Estibaliz Asua irakaslearen eskutik (2010-12-22).
- Gabonetako luncha (2010-12-22).
- Errektoretza taldeak topaketa bat egin zuen Dekanotza Taldearekin eta, gero, ikastegiko langileekin (2011-02-15).

- Fakultateko kideek omenaldia egin zioten Maribel Arriortua irakasleari, 2010eko Ikerketako Euskadi Saria eman ziotelako (2011-03-25).
- Bilera bat egin zen graduari eskolak ematen dituzten irakasleekin (2011-04-06).
- Bilera bat egin zen Campuseko ikasleei unibertsitateko ikaslearen estatutu berria aurkezteko (2011-05-04).
- Udako solstizioa ospatzeko eta ikasturteari amaiera emateko ekitaldia egin zen (2011-06-28).
- Fakultateko dekanoko ohi Leonardo Lorente irakasleari omenaldia egin zitzaion (2011-06-29).

UPV/EHU

- Fakultateko kideek Francisco Javier Ayala *honoris causa* doktore izendatzea proposatu zuten eta horretarako ekitaldian parte hartu zuten (2010-10-29).
- Fakultatean egin ziren "Doktoregoaren Europako konfigurazio berriari buruzko jardunaldiak" (2010-10-15).
- Fakultateko kideek UPV/EHUko doktore berriak izendatzeko ekitaldian parte hartu zuten (2011-02-25).
- Fakultateak UPV/EHUren % 0,7 Funtz Solidarioa elkarrearen 15. urteurrena ospatu zuen (2011-05-20).
- IMAGINARY erakusketa, Fakultateko kideek kudeatutakoa (2011-05-05etik 26ra).

ZTF-FCTk gizartean duen protagonismoa handitzera bideratutako jarduerak biltzen dira kanpo komunikazioaren atalean (P4.2.1.b prozedura). Hala, Fakultatearen irudia daramaten zenbait opari sortu ditugu (libretak, USB memoria txartelak, eta abar), ZTF-FCTren irudia bisitari eta kolaboratzaileen artean zabaltzeko asmoz. Objektuok salgai daude, Fakultateko kideek ekitaldi zientifikoetan erabil ditzaten. Amaitzeko, Fakultateko agiri guztiz guztiek Fakultatearen irudia daramate.

Fakultateari buruzko beste bideo bat prestatu dugu, bai graduako titulazioen berri emateko bai ikastegiaren ikerketa eta irakaskuntza ezaugarriak ezagutarazteko; alderdi horiek interesgarriak dira bai gure ikasle izan daitezkeenentzat bai gizartearentzat oro har.

ZTF-FCTk gizarte hedakuntzako hainbat ekitalditan parte hartu du; horri esker, Fakultatea gizartean ageriago dago. Gainera, ekitaldi horiek gizarte- eta enpresa-eragileekin itunak egitea ahalbidetu dute. Hona hemen itun horiek, laburbilduta (ikus baita ere 65. orrialdea):

- **2010eko urriaren 6a.** Euskal Herriko Kimikarien Elkargo Ofizialak elkarte bera eta bere jarduera azaldu zizkien Fakultateko ikasleei.
- **2010eko azaroaren 6a.** Dekanoa ikasturteari hasiera emateko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (UNED) antolatutako ekitaldian izan da.
- **2011ko urtarrilaren 14a.** ZTF-FCTko ordezkari talde bat Concepción de la Rúa irakasleari Zientzia Esperimentaletan 2010eko Euskoiker saria emateko Euskalduna Jauregian izandako ekitaldian izan zen.
- **2011ko martxoaren 5a.** Radio Euskadik dekanoa elkarrizketatu du, 2011n Kimikaren Nazioarteko Urtea izango delako.
- **2011ko maiatzaren 15a.** Fakultateak "Internet eguna" izeneko ekimenean parte hartu zuen. Ekimenean zenbait dekanorde Twitter sare sozialera konektatu ziren, gradu berriak ezartzearen inguruko galderei erantzuteko.
- **2011ko maiatzaren 16a.** ZTF-FCTko ordezkari talde bat Maribel Arriortua irakasleari 2010eko Ikerketako Euskadi saria emateko ekitaldian izan zen.
- **2011ko ekainaren 15a.** ZTF-FCTko ordezkari talde bat Goethe Institutuarekin elkarlanean hasteko bilkura batean izan zen, Leioako Campusean alemaneko ikastaroak eman ahal izateko. Egun, aipatu ikastaroak Fakultateak bakarrik ematen ditu Leioako Campus osorako.
- **2011ko ekainaren 16a.** Dekanoa Fakultateko irakasle Raúl Ibáñezi COSCEn Dibulgazio Zientifikoko Saria emateko Madrilen egindako ekitaldian izan zen.
- **2011ko ekainaren 17a.** ZTF-FCTko ordezkari talde batek Gaikerren instalazioak bisitatu zituen, bi erakundeek oinarritzko hitzarmen posible bat sinatzeko oinarriak finkatzeko.
- Aurtengo ikasturtean, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan Fakultateko graduen berri ematen ere aritu gara.

Kanpo komunikazioaren arloko ekintza garrantzitsuenetako bat **hainbat erakunderekin itunak** egitea da. 2010/2011 ikasturtean, ondorengo hitzarmenak sinatu dira:

- 2010eko azaroaren 3an Fundación Valle Salado de Añana-Añanako Gatz Harana Fundazioarekin sinatutakoa.
- 2010eko azaroaren 25ean Kudeaketa Serbitzuak S.L. enpresarekin sinatutakoa.
- 2011ko otsailaren 22an AlhóndigaBilbaorekin sinatutakoa.
- 2011ko maiatzaren 3an Euskal Kostaldeko Geoparkearekin sinatutakoa.

Fakultateko blogak, www.ZTFNews.org, elementu garrantzitsu bat izaten jarraitzen du ikastegiko berriak eta ekitaldiak ezagutarazteko eta zientzia eta teknologia zabaltzeko (P4.2.4 prozedura). 2010/2011 ikasturtean, sarrera kopurua nabarmen handitu da (ikus 14. taula).

Gainera, argitaratutako artikuluek interes handia piztu dute internauten artean eta, ondorioz, bisita kopurua are gehiago handitu da. Matematika Saileko Marta Macho Stadler erredaktoreak egindako lanari zor zaio, nagusiki, izandako arrakasta.

14. taula.- Fakultatearen blogaren (www.ZTFNews.org) jardura.

Ikasturtea	Erredaktore kop.	Argitaratutako sarrera kop.	Internauten bisita kop.	Hileko bisita kop., batez beste
2008/09	1	30	10.911	909
2009/10	4	114	47.142	4.123
2010/11	3	176	157.112	11.983

2009ko abendutik hasita, Fakultateak badu komunikazio kanal bat Twitter-en (@ztf_fct). ZTFNews.org blogean edo www.twitter.com/ztf_fct helbidean sartuta ikus daiteke. Harrezkero, ikastegiak Fakultateari eta UPV/EHUri buruzko berriak zabaltu ditu, eta, batez ere, zientziari eta teknologiari buruzko berriak, Estatukoak zein nazioartekoak. Sortu zenetik, guztira 2.532 twitt bidali dira komunikazio kanal honen bidez eta, egun, 142 jarraitzaile ditu.

Alberto Magno ospakizun ekitaldian, *ZTFegresados* **banaketa zerrenda** sortu izanari buruzko informazioa jaso zuten tituludun berriek (P4.2.2 prozedura). Bai ikasketak amaitu dituztenak bai azken mailetako ikasleak zerrenda horretan izena ematera modu aktiboan bultzatzen ditugu, abantaila handiak baititu informazio erabilgarria lortzeko (prestakuntza osagarriko ikastaroak, lan eskaintzak, eta abar).

15. taula.- 2010/2011 ikasturtean banaketa zerrendetan izena eman duten taldeei bidalitako mezuak.

Banaketa zerrenda	Mezu kop.
ZTFegresados	71
ZTFBio	22
ZTFGeo	2
ZTFQuimica	9
ZTFMate	9
ZTFFisica	11
Lcdciencias	320
Lcdpificencias	237
Lcdpasciencias	144
Aluciencias	181

2010/2011 ikasturtean, egun dauden 10 banaketa zerrenden bidez Fakultateko talde ezberdinei bidali zaien mezu kopurua 15. taulan jasotakoa da. 2010/2011 ikasturtean, 61 iradokizun, kexa edo/eta kontsulta jaso genituen (50 webgunearen bidez eta 11 ikastegian jarritako postontzietan), hainbat arlotan (P4.2.3 prozedura), ikastegiko langile eta ikasleek, eta Fakultatetik kanpoko pertsonak bidalita. Guzti-guztiak erantzun ditugu, batez beste 2 eguneko epean.

Ikastegiko webgunea, www.ztf-fct.org, etengabe eguneratu dugu (P4.2.4 prozedura), eta arreta berezia eman diogu Fakultateko titulazioen atalari. 2010/2011 ikasturte osoan zehar, webgunea bisitatu dutenek aukera izan dute ikastegiko gradu berriei buruzko informazioa kontsultatzeko. Estatistiken arabera, jarduera handieneko hilabetea 2010eko iraila izan zen, ikasturte hasierarekin eta gradu guztietako lehenengo maila ezartzearekin bat eginez. 16. taulan webgunerako bisiten bilakaera ikus dezakegu; azken urteotan, jarduerak behera egin du etengabe, baina eskuragarri dagoen informazio multzoa are zabalagoa da.

16. taula.- www.ztf-fct.org atarirako bisiten jarduera. Iturria: www.ehu.es/estadisticas

Ikasturtea	Trafikoa (GB)	Bisita kop.	Kontsultatutak o orri kop.
2007/08	68,52	144.752	544.349
2008/09	64,22	120.275	669.050
2009/10	116,06	108.413	630.351
2010/11	153,37	80.521	542.344

Aldika, Fakultateko irakasleek antolatutako ekitaldi zientifikoei buruzko informazioa bildu dugu, informazio hori hedabideetara helarazteko. **Informazio hori guztia kudeatzearen** erakusgarri, 42 prentsa ohar egin ditugu (P4.2.5 prozedura). Egindako lanaren ondorioz, 937 agerpen izan ditugu prentsan, eta haietako 296 bereziki garrantzitsuak izan dira.

2010/2011 IKASTURTEAN EGINDAKO PRENTSA OHARRAK

- 1) **2010-09-04:** Zientzia eta Teknologia Fakultateak lipidoen arloko Europako biltzarrik garrantzitsuena antolatu du.
- 2) **2010-09-10:** UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateak Bilbon egingo den Kristalografo Gazteen II. Bilera babestuko du.
- 3) **2010-09-13:** Zientzia eta Teknologia Fakultateak ikerketa proiektua gauzatuko du 2010/2011 ikasturtean Eusko Legebiltzarrarentzat.
- 4) **2010-09-15:** Ingeniaritza Kimikoaren etorkizuna Zientzia eta Teknologia Fakultatean eztabaidagai.
- 5) **2010-09-22:** Miren Cajaraville Fisiologia eta Biokimika Konparatuaren Europako Elkarteko presidentea izango da 2011z geroztik.
- 6) **2010-10-04:** Biokimikaren eta Biologia Molekularraren Espainiako Elkartek Zientzia eta Teknologia Fakultateko bi irakasle izendatu ditu zuzendaritza karguetarako.
- 7) **2010-10-22:** Zientzia eta Teknologia Fakultateak "Behe tenperaturako energia geotermikoa" izeneko hitzaldi zikloa programatu du.
- 8) **2010-11-12:** Zientzia eta Teknologia Fakultateak 2009/2010 promozioako diplomak banatuko ditu Alberto Magno ekitaldian. Euskadik 292 zientzialari eta teknologo berri ditu.
- 9) **2010-11-13:** Zientzia eta Teknologia Fakultateak José Manuel Barandiarán irakaslea saritu du XXII. Alberto Magno Zientzia-Fikziozko Lehiaketan.

- 10) **2010-11-23:** González Byass eta Beronia upategietako enologo batek emango die amaiera "Energia eta garapen iraunkorra XXI. mendean" jardunaldiari.
- 11) **2010-11-29:** Zientzia eta Teknologia Fakultateak "Third Basque Colloquium in Mathematics and its Applications" mahai-ingurua hartuko du.
- 12) **2010-12-03:** META plataforma teknologikoak uraren teknologiak eta iraunkortasuna aztertuko ditu Zientzia eta Teknologia Fakultatean.
- 13) **2010-12-14:** Fisikako Nobel saridun Claude Cohen-Tannoudji Zientzia eta Teknologia Fakultatean izango da urtarilaren 13an eta 14an.
- 14) **2010-12-17:** Itsasertzera isurtzen diren hiri eta industria hondakinen kontrol operatibo integratua egiteko prozedurak garatu dituzte.
- 15) **2011-01-07:** Concepción de la Rúa saritu dute Gasteizko Santa Maria katedraleko giza hondakinak ikertzeagatik.
- 16) **2011-01-13:** UPV/EHUK harrera egin dio Fisikako Nobel saridun Claude Cohen-Tannoudjiri.
- 17) **2011-01-24:** Zientzia eta Teknologia Fakultateak Mendozan (Argentina) egingo den V. Pegmatita Granitikoen Nazioarteko Sinposioa antolatzen lagundu du.
- 18) **2011-01-24:** Zientzia eta Teknologia Fakultateko tesi bati esker, Errioxako upategiek hobeto kontrolatu ahal izango dituzte ardo beltzaren ontze prozesua eta kalitate organoleptikoa.
- 19) **2011-01-25:** "Geometrian barrenako ibilaldia" izeneko zikloaren XIV. edizioa. Zientzia eta Teknologia Fakultateak matematika musikan, antzerkigintzan edo eguzki sisteman aplikatzeari buruzko 10 hitzaldi programatu ditu.
- 20) **2011-02-07:** Zientzia eta Teknologia Fakultateko tesi bati esker, Errioxako upategiek ardo gazteen zahartzeko gaitasuna ezagutu ahal izango dute banakako antozianoen analisi azkarra eginda.
- 21) **2011-02-11:** Kimikaren Nazioarteko Urtearen inaugurazioa Bilbon. Jaime Lissavetzkyk, "Kimika eta kirola" hitzaldiarekin, hasiera eman die UPV/EHUren Zientzia eta Teknologia Fakultateak eta Alhóndiga Bilbaok antolatutako jarduerari.
- 22) **2011-02-16:** Haur hezkuntzako ikasleak (5 urte) Zientzia eta Teknologia Fakultatean izango dira dinosauroei loturiko jarduerak egiteko.
- 23) **2011-02-28:** UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean egingo den mahai-ingurua María Silvestrek, Esther Domínguezek eta Marta Saloñak berdintasun politikek errealitatean duten eraginaz hitz egingo dute.
- 24) **2011-03-04:** Batxilergoko 50 ikasle euskaldunek parte hartuko dute bihar XXIII. Kimikako Euskal Olinpiadan.
- 25) **2011-03-11:** Zientzia eta Teknologia Fakultateak "Flysch, el susurro de las rocas" filma proiektatuko du.
- 26) **2011-03-11:** Ateak Zabaltzeko Jardunaldiak Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 110 ikastetxerentzat. Zientzia eta Teknologia Fakultateak ateak zabalduko dizkie batxilergoko 530 euskal ikasleri.
- 27) **2011-03-15:** Argazkigintza Matematikoa buruzko erakusketa Zientzia eta Teknologia Fakultateko hallean. 48 irudik osatzen dute "Con pico y alas" erakusgaia.
- 28) **2011-03-31:** "Políticas de Igualdad: ¿Cambiando la realidad?" izeneko mahai-inguruak amaiera emango dio UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko hitzaldi ziklo bati.
- 29) **2011-03-25:** Zientzia eta Teknologia Fakultateko tesi batek Bizkaian egindako txakolin beltzaren ezaugarriak zehaztu ditu profil antozianikoa eta aromatikoa aztertuz.

- 30) **2011-04-05:** UPV/EHUko bost ikaslek Euskal Herria ordezkatzeko dute G9 Unibertsitateko Eztabaida Ligan.
- 31) **2011-05-05:** UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikasleek Petronor bisitatuko dute.
- 32) **2011-05-05:** Matematika eguneroko bizitzan 2011. Maiatzaren 5ean VIII. hitzaldi zikloa hasiko da Bidebarrietako liburutegian.
- 33) **2011-05-13:** Gaur, UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateak sari zientifikoak emango dizkie Batxilergoko hainbat ikasleri.
- 34) **2011-05-25:** Zientzia eta Teknologia Fakultateak XXIII. ALBERTO MAGNO Zientzia-Fikziozko Literatur Lehiaketa iragarri du.
- 35) **2011-05-27:** Zientzialariak eta enpresak elkartuko dira ekainaren 6an eta 7an Zientzia eta Teknologia Fakultatean (UPV/EHU).
- 36) **2011-06-06:** UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko zenbait geologok kanpaina bat egingo dute Oka ibaian ekainaren 7tik 14ra bitartean.
- 37) **2011-06-16:** Kultura, matematikaren m-arekin. Zientzia eta Teknologia Fakultateak matematikaren eta arte eta kulturaren arteko lotura estua erakutsiko du.
- 38) **2011-06-23:** "OuLiPo: Matematika eta Literatura" mahai-ingurua Bilboko Bidebarrietako liburutegian.
- 39) **2011-06-28:** Ekainaren 28an udako solstizioa ospatuko da Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Martín Rivas fisikariak hitzaldi bat eskainiko du: "Quelle heure est-il, Professeur Poincaré ?".
- 40) **2011-06-30:** Esther M. Rebato Antropologia Fisikoaren Espainiako Elkarteko presidente hautatu dute.
- 41) **2011-07-08:** Bilbo, zenbakien hiria. Mundu osoko ehun bat matematikari Zenbakien Teoriari buruzko Laugarren Jardunaldietan izango dira.
- 42) **2011-07-22:** Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikasle batek Unibertsitateko Errendimendu Akademikoko Bikaintasunaren hirugarren sari nazionala lortu du Biokimikan.

Bestalde, hedabideekiko harremanak areagotu egin dira. Hain zuzen ere, 2011ko ekainean, **Komunikazio, Irudi eta Gizartearekiko Elkarrekintzako dekanordeari Zientzia Olinpiaden inguruan egindako elkarriketaren ostean**, Radio Euskadiko "La Mecánica del Caracol" irratsaioarekin harremanetan jarri ginen. Saio honek **dibulgazio historiko, kultural eta zientifikoko gaiak** lantzen ditu.

Egun, ikastegiak hilean bi ostegunetan Fakultateari dagozkion zientzia eta teknologia arloko gaien berri ematen du. Bestalde, "Escépticos" telebista saioaren zenbait kapitulutan ere parte hartu dugu.


Era berean, ikastegiko langileak dibulgaziozko zenbait jardueratan izan dira (P4.2.6 prozedura). Honako hauek aipa daitezke:

- **2010eko azaroaren 17a.** Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako dekanordea Biofisika Bizkaia Fundazioak antolatutako Komunikazio Zientifikoko II. Mintegian izan zen. Ekitaldira joan ziren Fakultateko ikasleei aukera askeko kreditu bat eman zitzaien.
- **2011ko otsailaren 10a.** Zientzia eta Teknologia Fakultateak eta Alhóndiga Bilbaok Kimikaren Nazioarteko Urtea inauguratu zuten atzo, Kiroleko estatu idazkari eta Unibertsitate Konplutentseko Kimika Zientzietan doktore Jaime Lissavetzkyk eskainitako "Química y deporte" hitzaldiarekin.
- **2011ko maiatzaren 27a.** Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako dekanordea Bizkaia Aretoko Baroja gelan Biofisika Bizkaia Fundazioak eta Kultura Zientifikoko Katedrak antolatutako Komunikazio Zientifikoko III. Mintegian izan zen.

Bestalde, joan den ikasturtean, XXII. **Alberto Magno Zientzia-Fikziozko Lehiaketa** izan zen (P4.2.7 prozedura). 44 kontakizun aurkeztu ziren guztira (9. irudia), gaztelaniaz guztiak ere. Argentinatik (3), Kubatik (1), Kolonbiatik (1), Estatu Batuetatik (1), Txiletik (1), Uruguaitik (1) eta Espainiako hainbat lekutatik (36) iritsi ziren kontakizunak.

- Hirugarren saria (1.500 euro): Jesús Angel Félez Castro (Berango, Bizkaia). Lana: *Sarasola32XY*.
- Bigarren saria (1.500 euro): José Manuel Barandiarán (Getxo, Bizkaia). Lana: *Metamorfosis magnética*.
- Lehenengo saria hutsik geratu zen.

Certamen Literario Alberto Magno



9. irudia.- Alberto Magno Zientzia-Fikziozko Literatur Lehiaketara aurkeztutako kontakizun kopurua. Denak gaztelaniaz idatzi dira, 2004/2005 ikasturtean euskaraz idatzitako bat izan ezik.

- **BESTE JARDUERA BATZUK**

Arestian aipatutako jardueraz gain, Fakultateko hainbat kidek aldizkako edo noizbehinkako jardueretan parte hartu dute, hala nola Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Astea (azaroan izaten da, Zientziaren karpan, Bilbon) eta baita dibulgazio zientifikoko beste ekimen batzuetan ere. Hona hemen aipagarrienak:

- ZTF-FCTn 2010/2011 ikasturteari hasiera emateko ekitaldia (2010-09-13).
- Unamuno ikasle egoitzan ikasturteari hasiera emateko ekitaldia (2010-10-10).
- Rivera irakaslea omentzeko ekitaldi akademikoa (2010-11-12).

Azkenik, Erandioko Tartanga GLHBIko ingurumen osasunaren zikloko 3 ikasle etorri dira **gure ikastegira praktikak egitera** (P4.2.8 prozedura), ZTF-FCTko hiru sailtara: Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia (tutorea: Miren Cajaraville), Ingeniaritza Kimikoa (tutorea: María José San José), eta Landare Biologia eta Ekologia (tutoreak: Sergio Menéndez eta Carmen González Murua).

P4.4 Baliabide materialak eta zerbitzuak

Honako prozedura hauek biltzen ditu:

- P4.4.A Kudeaketa ekonomikoa.
- P4.4.B Lokalak eta zerbitzuak kudeatzea.
- P4.4.C Segurtasuna eta prebentzioa.

2010eko urrian, Errektoretzak jakinarazi zuen 2011ko aurrekontuan murriztu egingo zela ikastegiei oro har ematen zaien diru hornidura. Hori gorabehera, Zientzia eta Teknologia Fakultatearen aurrekontuak (P4.4.A) iazko kopuru bera izan du, hots, 218.827,60 euro, 2010/2011 ikasturtean ikasle gehiagok egin dutelako matrikula.

Ohiz kanpoko finantziazioaren atalean (2011ko irailaren 30era bitartean) 100.068 euro jaso ditugu (ohiko aurrekontuaren % 46), honako hauetatik etorria: i) Fakultateak EHUndu deialdian parte hartzea; ii) Kalitate Programak (IPC) ezartzea; iii) lokalak alokatzeak eragindako diru-sarrerak; iv) erreprografia eta multimedia zerbitzua erabiltzeagatik sailei fakturatzea.

Aurrekontuaren zati handi bat irakaskuntzarako azpiegiturak hobetzeko erabili dugu. Hala, 40 ordenagailu erosi ditugu informatikako 2. gela berritzeko eta haietatik 20 IKT Gerenteordetzak finantzatu ditu.

Ekonomia Gaietako Batzordearekin batera, 2010/2011 ikasturterako ikastegiko irakaskuntza azpiegituraren eskaera kudeatu da. Campuseko Errektoreordetzak 214.672,83 -ko laguntza eman dio Fakultateari.

2010/2011 ikasturtean, informatikako azpiegiturak berrerabiltzeko ekimena jarri da martxan: informatikako 3. eta 5. geletatik kendutako 45 ordenagailu eta 22 pantaila eskaera egin duten sailen artean banatu dira, graduako eta gradu ondoko irakaskuntzan erabil ditzaten. Orobat, ikastegiak beste 4 panel ditu, ikastegiko lokalak alokairuan hartu dituzten erakundeek diruz lagundutakoak.

Fakultateko lokalen kudeaketari dagokionez (P4.4B prozedura), honako jarduera hauei eman zaie arreta (2010/2011 ikasturteko Kudeaketa Planean proposatutakoak):

- Irakaskuntza laborategien erabilera optimizatzea. 2010/2011 ikasturtean, azterlan bat egin dugu Fakultateko irakaskuntza laborategien okupazioa ikusteko. Azterlan honen emaitza gisa, 2011/2012 ikasturtean Esperimentazioa Ingeniaritza Kimikoan I (Ingeniaritza Kimikoko Gradu 2. maila) eta Esperimentazioa Ingeniaritza Kimikoan II (Ingeniaritza Kimikoko Gradu 3. maila) 0.21 laborategian emango dira. Irakasgai horiek eman ahal izateko egokitu egin da laborategia.
- Industria Nabearen erabilera sustatzea: 100 m²-ko beste modulu bat ESS-Bilbao elkarteari alokairuan utzi zaio, eta 50 m²-ko beste bat, berriz, José Luis Vilas irakasleari. Nabearen erabilera ikastegiko Ikerketa Batzordearekin elkarlanean kudeatzen da.

Segurtasuna eta prebentzioa atalean (P4.4C prozedura), honako jarduera hauek azpimarra daitezke:

- Beharrezko finantziak lortu dugu, Ekoscan ziurtagiria lortu ahal izateko ingurumen diagnostiko bat egiteko.
- 14.000 kg hondakin kimiko baino gehiago kudeatu ditugu EKONOR enpresaren bitartez.
- 7.000 litro hondakin biosanitario baino gehiago kudeatu ditugu ELIRECON enpresaren eta Campuseko erraustegiaren bitartez.
- Segurtasun gailu ohartarazle bat erosi dugu, teknikariek hondakinen biltegiko kudeaketa lanetan erabil dezaten.
- Kimikako eta biologiako irakaskuntza laborategietan 7 Diphoterine kit berritu ditugu eta atezaindegian hexafluorine kit bat jarri dugu.
- Biologiako irakaskuntza laborategietan segurtasun biologikoko 18 kabinaren mantenimendua berrikusi dugu.
- Segurtasun armairu berriak jarri ditugu Kimika Organikoko irakaskuntza laborategietan.
- 5 esku-hartze zuzentzaile egin ditugu CD eraikineko aireztapen sisteman.
- 17 esku-hartze zuzentzaile egin ditugu suteen aurkako babes sisteman.

- 146 kidek prebentzio arloko prestakuntza jardueretan parte hartu dute:
 - Laborategietako segurtasunari buruzko ikastaroa, Prebentzio Zerbitzuaren eskutik (29 parte-hartzaile)
 - Arrisku biologikoari buruzko ikastaroa, Prebentzio Zerbitzuaren eskutik (20 parte-hartzaile)
 - Hondakinen kudeaketari buruzko ikastaroa, Prebentzio Zerbitzuaren eskutik (26 parte-hartzaile)
 - Arrisku elektriko eta mekanikoari buruzko ikastaroa (41 parte-hartzaile)
 - Hondakinen kudeaketa eta segurtasunari buruzko ikastaroa, ECOCATen eskutik (14 parte-hartzaile)
 - Osasun hondakinak kudeatzeko prozedurari buruzko ikastaroa, Prebentzio Zerbitzuaren eskutik (7 parte-hartzaile)
 - Suteen aurkako segurtasun sistemak erabiltzeko ikastaroa, SERCOINen eskutik (9 parte-hartzaile)

P4.5 Euskara

Azpiprozesu honen helburua euskararen erabilera Fakultateko hainbat eremutan areagotzeko jarduerak sustatzea da. Halaber, ikastegiko barne eta kanpo komunikazioa elebiduna izatea ziurtatzen du.

17. (lizentziaturak) eta 18. (graduak) tauletan 2010/2011 ikasturtean ikastegiko titulazioetan euskaraz eskainitako kreditu kopurua ageri da.

17. taula.- Euskaraz eskainitako kredituak, lizentziaturak. Iturria: ARTUS

Titulazioa		Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Guztira
Biologiako Lizentziatura	Enborrekoak	112,5	45	157,5
	Nahitaezkoak	20,5	0	20,5
	Hautazkoak	0	74	74
Fisikako Lizentziatura	Enborrekoak	123	48	171
	Nahitaezkoak	48	6	54
	Hautazkoak	12	25,5	37,5
Geologiako Lizentziatura	Enborrekoak	180	6,5	186,5
	Nahitaezkoak	0	16,5	16,5
	Hautazkoak	12	6	18
Matematikako Lizentziatura	Enborrekoak	81	36	117
	Nahitaezkoak	64,5	0	64,5
	Hautazkoak	22,5	18	40,5
Kimikako Lizentziatura	Enborrekoak	123	70,5	193,5
	Nahitaezkoak	22,5	0	22,5
	Hautazkoak	52,5	58,5	110
Biokimikako Lizentziatura	Enborrekoak	-	33	33
	Nahitaezkoak	-	18	18
	Hautazkoak	-	22,5	22,5
Ingeniaritza Kimikoa	Enborrekoak	114	63	177
	Nahitaezkoak	39	0	39
	Hautazkoak	12	0	12
Ingeniaritza Elektronikoa	Enborrekoak	-	15	15
	Nahitaezkoak	-	0	0
	Hautazkoak	-	0	0
Ingurumen Zientzietako Lizentziatura	Enborrekoak	-	0	0
	Nahitaezkoak	-	0	0
	Hautazkoak	-	12	12

18. taula.- Euskaraz eskainitako kredituak, graduka. Iturria: ANECAren memoriak

Titulazioa		1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Edozein maila	Guztira
Biologiako Gradua	Oinarrizkoak	-	-	-	-	-	-
	Nahitaezkoak	60	-	-	-	-	60
	Hautazkoak	-	-	-	-	-	-
Fisikako Gradua	Oinarrizkoak	-	-	-	-	--	-
	Nahitaezkoak	60	60	54	12	-	186
	Hautazkoak	-	-	-	24	36	60
Geologiako Gradua	Oinarrizkoak	-	-	-	-	--	-
	Nahitaezkoak	60	-	-	-	-	60
	Hautazkoak	-	-	-	-	--	-
Matematikako Gradua	Oinarrizkoak	-	-	-	-	-	-
	Nahitaezkoak	60	-	-	-	-	60
	Hautazkoak	-	-	-	-	-	-
Kimikako Gradua	Oinarrizkoak	-	-	-	-	-	-
	Nahitaezkoak	60	-	-	-	-	60
	Hautazkoak	-	-	-	-	-	-
Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua	Oinarrizkoak	-	-	-	-	-	-
	Nahitaezkoak	60	-	-	-	-	60
	Hautazkoak	-	-	-	-	-	-
Ingeniaritza Kimikoko Gradua	Oinarrizkoak	-	-	-	-	-	-
	Nahitaezkoak	60	-	-	-	-	60
	Hautazkoak	-	-	-	-	-	-
Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	Oinarrizkoak	-	-	-	-	-	-
	Nahitaezkoak	60	60	48	-	-	168
	Hautazkoak	-	-	-	42	-	42
Bioteknologiako Gradua	Oinarrizkoak	-	-	-	-	-	-
	Nahitaezkoak	60	-	-	-	-	60
	Hautazkoak	-	-	-	-	-	-

Bestalde, Praktiges (HLH) sistemaren bidezko praktiken programan, Letren Fakultateko Interpretazioa eta Itzulpengintza titulazioko kide bat izan dugu gurean, eta idatzizko hainbat testu itzultzen jardun du 2010eko azarotik 2011ko ekainera bitartean. Horri esker, Dekanotza Taldeak sortutako dokumentazio guztia elebiduna izan da.

Horrez gain, ikastegian egindako batzar guztietan aldibereko itzulpen zerbitzua izan da.

Hona hemen euskarak bizitza akademikoan presentzia handiagoa izan dezan 2010/2011 ikasturtean 4.5 azpiprozesuaren barruan gauzatutako ekintza nagusiak:

1. Honako plaza elebidun hauek eman dira: i) irakasle atxikia Kimika Analitikoa Sailean, ii) irakasle agregatua Kimika Organikoa II Sailean, iii) irakasle agregatua Kimika Fisikoa Sailean, iv) irakasle atxikia Biokimika Sailean, v) katedra elebiduna Geodinamika Sailean, vi) irakasle atxikia Kimika Ezorganikoa Sailean.
2. "Murgil zaitez Zientzian" hitzaldi zikloa antolatu dugu. Batez beste 40 ikaslek parte hartu dute. Honako hitzaldi hauek osatu dute ziklo hori:

Data	Izenburua	Hizlaria
Urriak 13	Sudokua, denbora-pasa Zientzia?	M. Merino
Urriak 20	Enbatak eta beste haize kontu batzuk	M. Ruiz
Azaroak 3	Funtzioen deribatuen kalkulua: Newton eta Leibniz-en metodoetatik-ra	O. Oruetxebarria
Azaroak 10	Grafenoa, material noblea	A. Bergara
Azaroak 17	Intsektu inbaditzaileak Euskal Herrian	X. Pagola
Azaroak 24	Erradiazio termikoaren misterioak ikertzen	L. del Campo
Abenduak 1	Proteomika, garai post-genomikoan murgildutako ikerketa	F. Elortza
Abenduak 15	Zientziaren dibulgazioa edo dibulgazioaren zientzia	M. Gil

3. "Terminologia Sareak EHUnduz" ikastaroa egin dugu. Fakultateko irakasleentzat izan da eta Euskal Filologia Sailak eman du (ikus P4.1 azpiprozesua).
4. Ikastegiko Euskara Batzordearen ekimenez, atrilak jarri dira Fakultateko saltzeko makinaren ondoan. Atril horietan, kartel berriak jartzen dira hamabost egunean behin, adibide errazen bidez, euskarazko joskera arauak, ohiko akatsak, eta abar azaltzeko. Ekimen honen helburua Fakultateko irakasleek zein ikasleek euskararen erabilera hobetzea da. Jarduerari "Euskararen Txokoa" esaten zaio eta kartelak Fakultateko telebistetan ere agertzen dira.

Bestalde, ZTF-FCTn eleaniztasuna indartzeko jarduerak ere egiten ditugu. 95 irakaslek dute ingelesez, frantsesez eta/edo alemanez irakasteko egiaztagiria (2010ean 8k eskuratu zuten). 2010/2011 ikasturtean guztira graduako, lizentziaturako edo ingeniariatzako 6 irakasgai ingelesez eman dira (19. taula), ingelesez ematen diren masterrez gain.

19. taula.- ZTF-FCTn ingelesez emandako irakasgaiak.

Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakasleak
26813	<i>Molecular Evolution</i>	Miren Itziar Alkorta Calvo
Biologiako Lizentziatura		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakasleak
08082	<i>Methods and Techniques in Cell Biology</i>	Ionan Marigomez Allende Manu Soto Beñat Zaldibar Aranburu
08091	<i>Cell Biology</i>	Ibón Cancio Uriarte Amaia Orbea Del Rey Maren Ortiz Zarragoitia
08135	<i>Zoology: Chordates</i>	José Ramón Aiertza Azurtza
Fisikako Lizentziatura		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakasleak
17374	<i>Differential Equations</i>	Alexander Feinstein Gotlinsky José María Martín Senovilla
17382	<i>Partial Differential Equations</i>	Alexander Feinstein Gotlinsky José María Martín Senovilla


P5 Ebaluazio, berrikuspen eta hobekuntza prozesua

Azken prozesu honek ZTF-FCTk Ikastegiko Kudeaketa Sistema (IKS) eta horren prozesuak modu sistematikoan ebaluatzeko, berrikusteko eta hobetzeko erabiltzen duen metodologia zehazten du. Honako azpiprozesu hauek biltzen ditu:

P5.1 Ebaluazioa

P5.2 Berrikuspena eta hobekuntza

P5.3 5S programa



P5.1 Ebaluazioa

Ikastegiko Kudeaketa Sistemaren ebaluazioak egiteko metodologia ezartzea ahalbidetzen du. Gainera, bi prozedura barne hartzen ditu:

P5.1.1 Interes taldeen gogobetetasun mailaren analisia.


P5.1.2 Irakasleen lanaren kalitatearen ebaluazioa.

Azken ikasturteetan bezala, Kalitate Katedrako teknikariek Fakultateko irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen gogobetetasun mailari buruzko informazioa biltzeko beharrezko operatiboa garatu eta antolatu dute (P5.1.1 prozedura). UPV/EHUko Kudeaketa Berritzaileko Zentroen Sareko (KBZS) kideei kontsulta egin ondoren, inkestak maiztasuna aldatzea erabaki zen eta, hala, urtero egin ordez, bi urtean behin egitea. Egokiagoa iruditu zitzaigun langileen gogobetetasunari buruzko informazioa bi urtean behin biltzea, denboraldi hori egokiagoa baita datuak jasotzeko, emaitzak ebaluatzeko, hobekuntza ekintzak proposatu eta martxan jartzeko eta lortutako emaitzen azken ebaluazioa egiteko ziklo oso bat osatzeko. Hurrengo inkesta ikasturte honetan egingo zaie ikastegiko langileei (2012ko lehenengo hiruhilekoa).

2010/2011 ikasturtean ere ikasleek beren irakasleek emandako irakaskuntzarekiko duten gogobetetasun maila ebaluatzeko kanpaina egin da (P5.1.2 prozedura). Kanpaina hau Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (SED/IEZ) gauzatzen du eta gure ikastegian "autopase"

metodoaren bidez egiten da. 10. irudian irakasleen gogobetetasun orokorraren urtetik urterako aldaketak ikus daitezke, titulazioen arabera banatuta.

UPV/EHUko Irakasleen Irakaskuntza Jardueraren Ebaluazio Programaren (DOCENTIAZ) lehenengo fase esperimentalean ikastegiko 20 irakaslek parte hartu dute, beren borondatez (11. irudia). Denek ebaluazio positiboa izan zuten eta dagokion ebaluazio txostena jaso zuten, prestakuntzarako banatzen dena. Gainera, DOCENTIAZ programaren protokoloari jarraituz (<http://bit.ly/DOCENTIAZ>), Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa Sailak saileko txostena jaso du, bertako irakasleen % 20k baino gehiagok hartu baitute parte ebaluazioan.



10. irudia.- Ikasleek beren irakasleek emandako irakaskuntzarekiko duten gogobetetasun maila (1etik 5erako eskalan). Iturria: Irakaslana Ebaluatze Zerbitzua, IEZ. Biotechnologiako Graduan ez da baloraziorik egin, lehenengo mailako irakasgaiak beste gradu edo titulazio batzuetako irakasgaiekin multzokatuta baitaude (inkestetan multzokatzeen norakoak bakarrik hartu dira kontuan).



11. irudia.- DOCENTIAZ programa esperimentalaren esparruan ebaluatutako irakasleak, sailen arabera banatuta. Iturria: ZTF-FCTko Kalitate Batzordea

P5.2 Berrikuspena eta hobekuntza

Ikastegiko Kudeaketa Sistema (IKS), horren prozesuak eta prozedurak sistematikoki berrikusteko eta hobetzeko metodologia zehazten du, ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko. Fakultateko interes taldeen ahalik eta gogobetasun maila altuena lortzeko beharrezko hobekuntza ekintzak zehaztea eta lehenestea ahalbidetzen du. Gainera, P5.2.1 prozedura barne hartzen du (Prozeduren berrikuspena eta hobekuntza).

2010/2011 ikasturtean, UPV/EHUK ikastegiak kudeatzen laguntzeko UNIKUDE sistema unibertsitateko kideen eskura jarri du. Fakultateak Kalitatearen Barne Bermerako Sistemari (KBBS) buruzko dokumentazioa bildu du. Honako hauek dira:

- Ikastegiko erantzukizunen taula eta horiez arduratzen diren pertsonak.
- Prozesuen Sistemari (PS) buruzko dokumentazioa, dagozkion azpiprozesu eta prozesu guztiak zehaztuta.
- AUDIT dokumentazioa: KBBSren eta PSren eskuliburua izan zen.
- Plangintza Estrategikoari buruzko dokumentazioa.
- Kudeaketa adierazleen, adierazle estrategikoen, eta abarren taula.

Ikastegira atxikitako langile guztiek kontsulta dezakete informazio hori. Sisteman sartzeko, <https://gestion.ehu.es/UNIKUDE> estekan sakatu behar da eta LDAP identifikazioa erabili. KBBSko agirietaiko informazioa kontsultatzeko halako erraztasuna eskaintzea aurrerapauso handia izan da horren berri emateko: Fakultateko edozein pertsonak kontsulta dezake, edozein unetan, ikastegiaren kudeaketari buruzko informazio guztia.

Prozesuen Sistemaren eta Plangintza Estrategikoaren euskarri izateaz gain, UNIKUDEk ikastegiaren urteko kudeaketa egin bitartean sistema aldizka berrikustea ahalbidetzen du, bai titulazioena bai prozesuetan/prozeduretan zehaztutako ekintzena edo ekintza estrategikoena. Era berean, egin beharreko berrikuspenak egin ondoren, titulazioko txostenak (tituluaren segimendua) edo ikastegiaren urteko kudeaketa txostenak sortzeko aukera ere ematen du.

Horren harira, graduak ezartzeko lehenengo mailari dagozkion titulazioen segimendu txostenak (ikus P1.3 azpiprozesua) UNIKUDE erabiliz prestatzen ari gara. 2011/2012 ikasturtean, tresna hau erabiliko da prozesuen kudeaketarako eta plangintza estrategikorako euskarri gisa, sistemak ahalbidetzen duen heinean.

Aipatzekoa da, halaber, 2010/2011 ikasturteko lehenengo maila amaitutakoan, graduak ezartzeko prozesuaren inguruko analisi bat egin zela; bertan, antzemandako gorabeherak eta ikasleen errendimendu akademikoak kontuan hartuta (iturria: ARTUS). Zeregin honi lehenengo mailako eta titulazioko koordinatzaileen funtsezko partaidetzari esker heldu zitzaion, baita Kalitate Batzordearena ere. Horren ondorioz, Graduen Ezarpena Hobetzeko Plana jarri zen martxan (P1.3 azpiprozesua).

P5.3 5S programa

Irakaskuntza laborategietan eta ikastegiko beste eremu komun batzuetan 5S metodologia ezartzeko mekanismoa zehazten du. Programa honen helburua erabiltzaile guztientzat komunak diren Fakultateko lekuak antolatuta, ordenatuta eta garbi egotea lortzea da, diziplinaren eta ohituren bitartez. Era berean, taldeko lana eta Fakultateko zerbitzuen erabilera egokia eta zainketa ere sustatu nahi ditu.



2010/2011 ikasturtean zehar, 5S metodologia martxan jartzeko guztira 5 talde aritu dira modu aktiboan. Horietan 15 pertsonak parte hartu dute. EUSKALITEk talde horiei metodologiari buruzko prestakuntza espezifikoa eta aholkularitza eman die, Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetzaren finantziazioari esker (IPC 2009 programa):

- Fakultateko Multimedia Zerbitzua
- Fakultateko Atezaintza Zerbitzua
- 0.3 irakaskuntza laborategiak, Geologia atala
- 0.38 eta 0.39 irakaskuntza laborategiak, Landareen Biologia eta Ekologia Saila
- 0.32 eta 0.33 irakaskuntza laborategiak, Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saila

3. 2011/2012 IKASTURTEKO KUDEAKETA PLANA

Fakultateak baduen 2011-2015 aldirako Plan Estrategikoa, 2010/2011 ikasturtean zehar prestatutakoa, Ikastegiko Batzarrak onartu beharreko 2011/2012 Kudeaketa Plana bat dator aurtengo ikasturterako plangintza estrategikoan programatu diren ekintzekin.



4. LABURDURAK

Laburdura	Definizioa
AABB	Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordea (ZTF-FCT)
AADB	Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordea (UPV/EHU)
AAEO	Akademia Antolakuntzako Errektoreordetza
AGZ	Akademi Gestioko Zerbitzua
AL	Latinoamerika
ALZ	Arkitektura eta Lanen Zerbitzua
AZJ	Ateak Zabaltzeko Jardunaldiak
AZPko langileak	Administrazio eta zerbitzuetako langileak
BHI	Bigarren hezkuntzako ikastetxea
EAJ	Enpresen Aurkezpenerako Jardunaldiak
ECTS	European Credit Transfer System (Europako kreditu sistema)
EFQM	European Foundation for Quality Management
EHH	Eraberritzea, handitzea eta hobekuntza
EIZ	Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzua
EP	Erreferentziatzeko plantilla
EP _r	Enpresetako praktikak
GAL	Gradu Amaierako Lana
GIB	Graduko Ikasketen Batzordea
GLHBI	Goi-mailako Lanbide Heziketako Berriazko Institutua
GO	Gerenteordea
HLH	Hezkuntza lankidetzarako hitzarmena
IAZ	Ikasleentzako Argibide Zerbitzua
IEZ	Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzua
IKD	Ikasketa Kooperatibo eta Dinamiko / Enseñanza-aprendizaje cooperativo y dinámico
IKT	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
Ir./ik.	Irakasle eta ikertzaileak
KBB	Kalitatea Bermatzeko Batzordea
KBBS	Kalitatearen Barne Bermerako Sistema
KBZS	UPV/EHUko Kudeaketa Berritzaileko Zentroen Sarea
KP	Kudeaketa Plana
KT	Kudeaketa Txostena
LHI	Lanbide heziketako ikastetxeak
LKI	Lan legepeko irakasle kontratatu iraunkorra
LPZ	Lanpostuen zerrenda
MP	Mugikortasun programak
PE	Plan Estrategikoa
PI	Prestatzen ari diren ikertzaileak
PKS	Prozesuen araberako Kudeaketa Sistema
PM	Prozesuen Mapa
PS	Prozesuen sistema
SICUE	Espainiako Unibertsitate Ikastegien arteko Truke Sistema
TASSEP	TransAtlantic Science Student Exchange Program
TGDO	Titulazioen Garapeneko dekanordea
TKBS	Titulazioen Kalitatea Bermatzeko Sistema
TR	Transcript of Records
UK	Unibertsitateen Kontseilua
UKP	Urteko Kudeaketa Plana
UKT	Urteko Kudeaketa Txostena
UOA	Unibertsitate Orientaziorako Azokak
ZT / DT	Zuzendaritza Taldea / Dekanotza Taldea
ZTF-FCT	Zientzia eta Teknologia Fakultatea – Facultad de Ciencia y Tecnología
ZTFIAZ	Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikasleentzako Argibide Zerbitzua

ESKERRAK

Dekanotza Taldeak eskerrak eman nahi dizkizue ikasturte honetan ideiak, ahaleginak, kritikak, zorionak edo adorezko hitzak izan dituzuen eta lagundu diguzuen guztiei. Eskerrak eman, baita ere, txosten honetan bildutako zereginen funtzionamenduan eta garapenean lagundu duzuen guztiei. Eta baita Fakultateko administrazio eta zerbitzuetako langile guztiei, irakasleei, ikertzaileei eta ikasleei ere.

Gure eskerrik beroena eman nahi diegu ondorengoei:

- Titulazioko, ikasturteko eta gradu amaierako lanetako koordinatzaileak, beren konpromiso eta dedikazioagatik, funtsezkoak izan baitira ezarri berri diren graduen lehenengo maila honetan.
- Tutore akademikoak.
- Fakultateko batzorde guztietako kideak.
- Ikastegiko Batzarreko kideak.
- Sailetako zuzendari eta idazkariak.
- Sailataletako koordinatzaileak.
- Ikasleen elkarteak.
- Ateak Zabaltzeko Jardunaldietan, Enpresen eta Berrikuntza Teknologikoko Zentroen Aurkezpenerako Jardunaldietan, Alberto Magno ekitaldian eta ikasle berrien harrera ekitaldian parte hartu zuten ikasleak, irakasleak eta AZPko langileak.
- "Zientzia Bizirik", "Zientzia Olinpiadak", "Zientziaren Astea", "Alberto Magno 2010 ekitaldia" eta "Udako Campus Zientifikoa" jardueretako parte-hartzaileak eta Alberto Magno Zientzia-Fikziozko Sariaren epaimahaiko kideak.
- Ikastegian lanean 25 urte eman dituzten irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak (Fernando Plazaola, Francisco Javier Duoandikoetxea, Ibon Sagastabeitia, Miren Sorkunde Mendia, Moisés Clemente Rodríguez) eta 2010/2011 ikasturtean erretiroa hartu duten irakasleak (Ignacio García Gurtubay, José Javier Elorza, Juan Veguillas, Leonardo Lorente, María Dolores Badía, Miguel Ángel Pérez Jubindo, Rosa Jiménez, Rosa Valenciano), gure fakultatearekiko dedikazio eta konpromisoagatik.

Eskerrik asko baita ere ikastegiko jarduerak finantzatzuz laguntza eman diguten erakundeei: BBK, Bizkaiko Aldundia, elkargo profesionalak, AVEQ, IHOBE, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Campuseko Errektoreordetza, Ikerketako Errektoreordetza, Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetza, Ikasleen Errektoreordetza, Nazioarteko Hedakuntzako Errektoreordetza eta Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetza.

Gracias a todos, Eskerrik asko.